SAKANAKO ASTEKARIA • 2013ko abenduak 27, ostirala • 2. aldia • 445. zenbakia

GUAIXE.NET

TOKIKOM

Guaixe eta Beleixe oporretan. Ilbeltzaren 7an itzuliko gara

Urteko azken egunean, San Silbestre lasterketak Altsasun eta Olatzagutian. Txirrindula edo mendia dira beste aukerak



Kirolak >> 11

Haize Berriak banda Queen omenduz

>>15

Ziorditik Arabarako pista bat aurki asfaltatuko dute

>>7

Zerbitzuak euskaraz ez daude bermatuta

>>5

Urte berriarekin opari gehiago

>>9

Gaztagileei aitortza

>>3

Bi disko bidean

>>15

Euskara zerbitzua diru-laguntzarik gabe

>>3

GUAIXE Sakanaz sarean TOKIKOM

Egin zaitez komunitateko kide

Behin izena emanda, edozer esan al dezaket?

Ez, noski. Gogoratu arau sinple hauek:

• **BAT.** Guaixe.net-en parte hartzeko **erregistratu beharra dago.**

• **BI. Irainak ez ditugu onartuko.** Halakoak baleude, guaixe.net-ek kentzeko eskubidea dauka.

• **HIRU. Testua euskaraz idatzi behar da.** Bestela, guaixe.net-ek kendu egingo du.

Zalantzaren bat baduzu: 948 562 107 / bierrik@guaixe.net helbidera

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzaileak • Alumninioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com

ZORIONAK LUILLY!
Boltio,Oihan ta gainontzekoak etxeratu arte EGURRE!!!

Ezkai Lakuntza Arza
ZORIONAK eta muxu pila bat zure 3. urtebetetzean. Arbizuko eta Altsasuko familia guztiaren partez.

Pello Lazkoz Amillano
ZORIONAK PELLO!!! 6 URTE !!!. Beti bezain ausarta jarraitu guapeton!. Egun ona pasa. Muxu eta besarkada asko!!

Pello Lazkoz Amillano
ZORIONAK Pello zure seigarren urtebetetzean!!! Mila muxu eta besarkada asko familiaren partez eta bereziki zure anaia Xabat eta Dulantzengandik!

abenduak-ilbeltzak 27-9

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Antton. Abenduak 27an, ostiralean, 22:30ean Arbizuko Argi Bidea elkartean.

The Upper Room. Abenduaren 27an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko kultur etxean.

Jone Rubio. Abenduaren 27an, ostiralean, 23:00etan Altsasuko Lurrazpi tabernan.

Ikuskizunak aurrera egin behar du. Queen monografikoa. Abenduaren 28an eta ilbeltzaren 4an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Haize Berriak banda.**

Chuchín Ibañez. Abenduaren 28an, larunbatean, 24:00etan, Olatzagutiko Clinkerren.

AK, Iosu Garate, Letxu eta Loksea. Abenduaren 31n, asteartean, 00:30etik aurrera Altsasuko Lezea tabernan.

Jaione eta Aintzane Diaz. Ilbeltzaren 4an, larunbatean, 23:00etan Altsasuko Lurrazpi tabernan.

Alerta Gorria eta The Offenders. Ilbeltzaren 5ean, domekan, 23:00etan Altsasuko gaztetxean.

Nöle vs Gordon, Insane sound system, Oraa eta Txen. Ilbeltzaren 5ean, domekan, 00:00etan Altsasuko Lezea tabernan.

Txotxongiloak

Manoviva. Abenduaren 28an, larunbatean, 18:00etan Irurtzungo kultur etxean. Abenduaren 29an, domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Girovago e Rondella konpainia.**

Proiekzioa

Irurtzun telebistaren saio berriaren mustutzea. Ilbeltzaren 4an, larunbatean, 20:00etan Irurtzungo Pikuxar euskal txokoan.

Karakorum. Abenduaren 29an, igandean, 19:30ean, Lakuntzako udaletxean. Zabalarte mendi kluba. **Mikel Zabalza.**

Zinema

La caza. Abenduaren 27an, ostiralean, 21:45ean eta abenduaren 29an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Vivir es fácil con los ojos cerrados. Abenduaren 27an, ostiralean, 22:00etan eta abenduaren 29an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Turbo. Abenduaren 29an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Malutaxo. Abenduaren 29an, igandean, 17:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean.

Chef, zorionaren errezeta. Abenduaren 29an, igandean, 19:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean.

Blue Jasmine. Ilbeltzaren 3an, ostiralean, 22:00etan eta ilbeltzaren 5ean, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Mendi irteerak

Erga+txokolatada. Abenduaren 29an, igandean, 9:00etan Irurtzundik. **Pikuxar eta Iratxo mendi taldea.**

Aitzgorri. Abenduaren 29an, domekan, goizez. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Lakuntzaskoarri. Abenduaren 31n, asteartean, 8:30ean Lakuntzako plazatik. **Zabalarte mendi elkartea.**

Bargagain. Ilbeltzaren 5ean, domekan, 8:00etan Altsasutik. **Altsasuko Mendigoizaleek antolatuta.**

Beriain. Ilbeltzaren 6an, astelehenean, 9:00etan Unanutik. **Sakanako Mendizaleak.**

Txirrindula irteerak

San Silbestre igoera. Abenduaren 31n, asteartean, 16:00etan Altsasuko

SDAren egoitzatik.

Erakusketak

Jaiotzak. Ilbeltzaren 12ra arte, astelehenetik larunbatera 18:00etatik 20:00etara eta domekan 13:30etik 14:30era eta 17:00etatik 20:30era Olatzagutian, Sakanako Belenzaleen egoitzan.

Agiri despopulatuko aztarnak. Ilbeltzaren 6ra, goiz eta arratsaldez, Uharte Arakilgo udaletxeko ezkaratzean.

Eguberrietako txartelak. Abenduaren 28tik ilbeltzaren 6ra arte Altsasuko Iortia kultur gunean.

Tailerrak

Sukaldaritza kurtsoa. Ilbeltzaren 9an, ostegunean, 17:30etik 19:30era Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. Martxoaren 13ra arte. Izen ematea ilbeltzaren 6ra arte.

Haur parkea. Abenduaren 27an, ostiralean 12:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara Irurtzungo pilotalekuan.

Jolas parkea. Abenduaren 28an, larunbatean 11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era Olatzagutiko Erburua kiroldegian.

2013 urteari agurra: afaria autogestionatua (etorri mozorratuta)+ DJ Sergio+ edaria. Abenduaren 28an, larunbatean, 21:00etatik 1:00etara Altsasuko Intxostiapunta gaztean.

Mus Txapelketa Azkarra. Abenduaren 29an, igandean 16:00etan Irurtzungo Pikuxar euskal txokoan.

Jolas parkea. Ilbeltzaren 3an, ostiralean, 11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era Etxarri Aranazko pilotalekuan.

Lipdub. Ilbeltzaren 4an, larunbatean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Abenduaren 27an, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. **Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Abenduaren 29an eta ilbeltzaren 5ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Abenduaren 30ean, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 3an, ostiralean, 20:00etan Irurtzungo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

TBREN SAIO BERRIA IRISTEAR: Ilbeltzaren 4an, larunbatean, 20:00etan Irurtzungo Pikuxar euskal txokoan Irurtzun Telebistaren 5. saioa ikusteko aukera izanen da. Aurrekoen modura, Irurtzungo Euskaraz blogean (http://blogak.com/irurtzuneuskaraz) izanen da ikusgai.

ezkaatza >>

SAKANA

Eta orain gobernuak Euskara Zerbitzuak diru-laguntzarik gabe utzi ditu

Euskararen normalizazioaren zama ekonomiko ia osoa udalen bizkarraren gainean uzten du, Gobernuak bere ardurari uko eginda

Euskarazko hedabideen edota euskaltegien ondoren, toki erakundeen Euskara Zerbitzuen txanda iritsi da. Euskara Zerbitzua duten udalek eta Mankomunitateek, Sakanakoak barne, aurten ez dute Nafarroako Gobernuaren lauko bat bera ere jaso. Eta ez dakite jasoko duten ere. Toki erakundeetako ordezkariek, Mank-eko Maite Aldaz barne, astelehenean emandako prentsaurrekoan salatu zuten egoera.

Toki erakundeetatik "Nafarroako Gobernuak euskararen normalizazioari eta euskara sustatzeko lanari ematen dion laguntza eskasa, baita hainbat aldiz jartzen dizkion trabak" salatu zituzten. Nafarroako Gobernuak 2012ra arte indarrean izan zen hitzarmen bidea baztertu zuen Nafarroa guztiko toki erakunde guztiei zabalik zegoen lehiaketa bat deituz. Joan zen urtean aldaketa hori okerrerakoa zela nabarmendu zuten eta hala salatu zuten toki erakundeek. Baina aurten Nafarroako Gobernuak ez du ezta deialdi hori ere egin.

Deia

Herritarrengandik gertuen dauden erakundeak euskararen alde egindako lana laguntzarik gabe utzita, gobernuak bere ardura baztertzeaz aparte, finantza zama guztia udal eta mankomunitateen bizkarrean uzten du. Hala ere, toki erakundeetako ordezkariek "gure konpromisoari eutsi diogu, urteko lan-ildoak eta ekintzak landu eta gauzatu ditugu".

Aldi berean, salatu dute Nafarroako Gobernuaren "euskalgintza eta euskararen aldeko lana finantziaziorik gabe uzteko politika horri, gainera, euskararen normalizazio lana zailtzen eta oztopatzen duten bestelako gatazken eta auzien gainean jarrera pasiboa erakutsi du edo, zenbait kasutan, baita gatazka eta susmoak elikatzeko eta indartzeko jarrera ere (D ereduaren inguruan berriki gertatua, esaterako, ETBren emisioa...)". Bere erantzukizuna eta hartutako konpromisoak betetzeko eskatu diote toki erakundeek Nafarroako Gobernuari, "udalekin lankidetzan arituz eta hitzarmenaren bidea hobetsiz".

Mank-eko Maite Aldazek ere gobernuaren erabakia salatu zuen. UTZITAKOA

% 82ko jaitsiera

2001. urteko 727.344 eurotatik 2012ko 133.000 eurotara dagoen aldea.

Abortuaren Legearen kontrako aurreneko ahotsak

Larunbatean 30 bat pertsonak kontzentrazioa egin zuten. Talde feministek jendarte guztiaren erantzuna eskatu dute

Ostiralean onartu zuen Espainiako Ministroen Kontseiluak Kontzebituaren Bizia eta Haurdunaren Eskubideak Babesteko Lege Organikoaren aurreproiektua. Abortatzeko aukera bortxaketaren biktima izan edo osasuna "arrisku larrian" duten emakumeek soilik izanen dute. Abortatzeko baldintzak gutxitzeaz aparte eskakizuna eta tramiteak gehitu egin ditu.

Larunbatean, Altsasuko Feministak eta Bilgune Feministak deituta 30 bat pertsona bildu ziren

Altsasuko udaletxe aurrean Abortuaren Lege berriaren aurreproiektua salatzeko Abortua libre eta dohain eskatu zuten eta proposamenak 1985eko legea baino atzerakoiagoa dela esan zuen. Bi erakundeetako ordezkariek azaldu zigutenez, PPren lege erreformak emakumearen erabakitzeko eskubidearen kontra egiten du, "eskubide bat kendu nahi digute". Gobernuaren proposamenaren arabera emakume gutxik izanen luke legez abortatzeko aukera. Gainontzekoak abortatu nahi izanez gero lege arazoak izan ditzaketela nabarmendu dute feministek.

Medikuen kontzientzia objekziorako aukera legean jasoa dago. Osasun publikoak ez badu zerbitzu hori eskaintzen, emakumeak klinika pribatuetara joan beharko lukete. Eta haietara joan ezin dutenak modu klandestinoan abortatzeko aukera berriro sortu daitekeela gaztigatu zuten feministek: "egon daitezkeen osasun eta segurtasun arazo guztiekin". Gogorazi dute orain arte Etxarriko Izargi zentrora joatea nahikoa zen abortatzeko prozesua hasteko. "Orain zer gehiago egin beharko da?" Halakorik ezin dela onartu eta aurreproiektua bertan behera uzteko mobilizatzeko deia egin dute talde feministek.

Nazioartean sariak lortu dituzten gaztagileei aitortza

Arbizuko Araña-Etaio eta Altsasuko Patxi Amillano omenduen artean

Idiazabal Gazta Jatorrizko Izendapenak Ordiziako eguberrietako aparteko azoka baliatu du aurten nazioarteko lehiaketetan saria lortu duten gaztagileei aitortza egiteko. Egindako lanagatik eta izendapenaren prestigioa zabaltzeagatik zoriondu dituzte.

Esker ona jaso dutenen artean sakandarrak ere badaude: Espainiako ekoizpen ekologikoko gazta onenaren saria jaso duen Patxi Amillanok (Larrezabal Eko), Birminghamgo World Cheese Awards txapelketan urrezko domina lortu zuen babestutako jatorri izendapena mailan ere. Arbizuko Araña-Etaiok ekoiztutako Juananeko Borda gaztak, berriz, maila berean brontzezko domina eskuratu zuen.

beleixe guaixe Non erabili

NAMASTE YOGA
ALTSASU
www.namastecentro.es-en galdetu eskaintzen berri.

TIPI TAPA OINETAKOAK
ALTSASU
60 €ko erosketagatik %10eko deskontua (eskaintza ez metagarria).

VIZU ILEAPAINDEGIA
ITURMENDI
30 €ko gastuarekin % 10eko deskontua.

ALDASORO HARATEGIA
ALTSASU
30€ko erosketa betengatik etxeko produktua opari.

ALFA INMOBILIARIA
ALTSASU
Etxe edo pisu baten erosketagatik 100 €ko txekea opari.

KIXKUR ESTETIKA ZENTROA
ZIORDI
30 €ko gastuarekin %20eko deskontua produktuetan.

IORTIA HORTZ KLINIKA
ALTSASU
%10 aho garbiketetan eta hortz ateratzeetan. Azterketa doan.

JULENE KORTSETEGI ETA LENTZERIA
ALTSASU
50 €ko erosketa batengatik %10eko deskontua.

JON CORDON TAXIA
IRURTZUN
%10eko deskontua.

JAVIER AIZPUN HARATEGIA
UHARTE ARAKIL
50 €ko erosketetan, etxeko produktua doan.

MARTIARENA GAZTANDEGIA
UHARTE ARAKIL
% 5eko deskontua.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

astekoa

Raf Atxuri

LOMCEren ikasgaia

Irakaskuntzarena arrastaka (ezen ez arrakastaz) darabil Espainiar Erresumak azken hamarkadetan, eta erresuman diot Errepublika garaian hezkuntza antolakundeari asmoz, jakitez eta grinaz ekin ziotelako han eta hemen (ikastolak eta Bizkaiko auzoeskolak lekuko) halako moldez non Gerra Zibilean eta gerra ondoan maisu-maistren gizasaldoa jomugan paratu zuten militar frankistek eta euren enparauek. Irakaskuntza eliza katolikoaren esku utzi zuten, hizkuntzei eta espainieraren "dialektoei" mota guztietako eraztunak eman zizkieten lotsa eta erru sentimenduak haur eta gazteen baitan errotu zirela; NODOetan bezala ikasgeletan zuribeltzezko esperientzia ilun bat zabaldu zen.

Garai hartan eraiki zen hezkuntz eta hizkuntz eredu bat, *Cuéntame* bezalakoek axaleko kritikatxo batzuk gora behera jator eta maitagarritzat jotzen dutena eta hartan oinarritua ingelesaren txertaketarekin eta tresna digitalen erabilerarekin hezkuntza gurutzedun kontraerreforma bat gauzatu nahi du espainar eskuinak.

Zalantzarik ez daukat, ordea, ale onak dauzkala lege honek (herritartasuna" ikasgaia ezabatzea, kasu. Zertarako daude tutoretza saioak?). Alabaina, benetako erronkak aintzat hartzeko gauza izanen ote da, hots, ikaslearen garapen afektibo, kultural, emozional, intelektual eta soziala ardaztzat hartuko ditu, eskola gizartearen kohesiorako lekua izanen da? Fenomeno sozial berriei, emigrazioari, teknologia berrien gainerabilerari, asaldurari (hiperaktitateari)… erantzuteko gauza izanen da edo elite berriak elikatzera mugatuko da?

Dereduak inkisizo berriek kriminalizatu, pozoindu eta kakaztua izan gabe lekurik izanen du legearen garapenean? Iturrama institutuari bake pixka bat emanen ote dio LOMCEk?

barrutik kanpora

Urte berrirako deia

Gaurkoan distantziari buruz hitz egingo dugu. Errealitatea eta desioen artean dagoen distantziari buruz konkretuki. Errealitatea ikusteko, pertsona bezain beste ikuspegi daude, eta azken aldian instituzioek herri honek bizi duen errealitatea deskribatzeko darabilten mezua harritu eta haserretu egiten gaitu. Hau da mezua, ondoa jo dugu eta berriro gora egingo dugu. Hori bai, lasai enpleguari dagokionean. Mezu honek irakurketa asko izan ditzake. Gure agintari guztiak zintzoak dira, eta haiek datu makroekonomikoei begira etorkizun oparoa aurreikusten dute gizartearentzat. Baina memoriak ez digu halako arrazonamenduetara heltzen uzten, eta ustelkeriak eta enpresa handiei zor dieten guztiak beste irakurketa sakonagoa eskatzen du.

Sistemaren krisialdia ez da bukatu, eta ez dago epe motzean ezta ertainean ere inolako daturik orain dela 5 urte bizi genuen egoerara bueltatuko garela adierazten duenik. Zerbitzu publikoen suntsipena (osasungintza, hezkuntza eta gizarte zerbitzuak), lan munduan ezarritako arau berriak eta pentsio sistemaren erreformak hori diote. Sortutako lanpostu berriak ez dira galdutakoen ehuneko hamarrera ailegatzen eta, gainera, hauen prekarietatea esklabutzatik gertuegi daude. Gainera, dirua inolako zentzurik ez duten azpiegituretan xahutzeko aukera horretan jarraitzen dute. Ez gara atzera bueltatuko eta ez dugu atzera egin nahi. Gure gizarteak etorkizun hobea behar du eta soilik, antolakuntza eta proiektu sendo baten inguruan gure indar guztiak metatzen ditugunean etorkizun oparoa izango dugu. Bizitzea merezi duen bizitza ez da ekonomia ministerioetan emandako prentsaurrekoetatik sortuko.

Abian plataforma

hara zer dien

Ospakizunak eta kontsumoak

Dagoeneko hasiak diren jai egun eta ospakizun egunetan murgilduak gauden honetan hainbat gomendio luzatu edo gogorarazi nahi dizkiegu interesa duten guztiei: gazteak, helduak, edadetuak, gurasoak, politikariak, gidariak, emakumeak, gizonak, neskak, mutilak….

Gomendio hauek gure bizitza arriskurik gabekoa eta osasuntsuagoa egiten lagunduko digute. Kontsumoarekin lotuak dauden gomendioak dira hain zuzen ere.

Gure gizartean, denok dakigun bezala, ospakizunetan alkohola eta beste sustantzia batzuk kontsumitzea oso barneratuta dago. Horregatik egun hauetan egin ohi ditugun ospakizunetan, gelako afariak edo bazkariak, laneko afariak eta bazkariak, familia arteko bazkari eta afarietan… sustantzia batzuk kontsumitzen direnez, gure gomendioa neurriz egitea da. Helburua ondo pasatzea da, beraz hobe neurriz jokatzea pasatzea baino, ezin dugu ahaztu kontsumo guztiek beren arriskuak dituztela.

Gure gorputzari kanpotik sartzen dizkiogun sustantziak nola eragingo dioten aurretik ez dakigunez, kontsumitzea erabakitzen baduzu, kontsumoak pixkanaka eta lasaitasunez egitea da egokiena; oso epe laburrean alkohol kantitate handia hartzen badugu, bat-batean edandakoaren eragin guztia sentituko dugu eta alderantziz pixkanaka edaten joanez gero, pixkanaka ere nabaritu dugu eragina eta errazago izango dugu gelditzea oso pasatuta egotera iritsi gabe.

Askotan, ospakizun hauekin batera autoarekin joan-etorriak daude. Beste herri batzuetara mugitzen gara eta gero etxera bueltatu beharra dago. Kontsumoen ondoren gure zentzumenak eta gaitasunak ez dira betikoak, gutxituak daude; horregatik gure lehen gomendioa autoa hartu behar badugu ez edatea edo ez kontsumitzea litzateke, baina hala ere, egin nahi badugu, autoa ez erabiltzea da hoberena. Edan ez duen beste norbaiti eramateko eskatu, taxia deitu…

Badago gazteen artean gero eta zabalduagoa dagoen ohitura bat: autoa eramaten txandakatu egiten dira eta gidatzea tokatzen zaionari ez du kontsumitzen. Beraiek eredu izanik, helduak ere gauza bera egin dezakete eta arriskurik gabeko ospakizunak izan. Denok nahi dugun helburua betez, ONDO PASATZEA PASATU GABE!!!

Prebentzio programak

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso eta Maialen Huarte Arano
ZUZENTZAILEA: Felix Alzelai
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK

Mank sakana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza

sakanerria >>

» Arbizu / Etxarri Aranatz

Duela 30 urte onartu zen Euskararen Legeak ez du euskarazko zerbitzurik bermatzen

Haiek eremu euskaldunean bermatzeko planik ez du Nafarroako Gobernuak, ezta asmorik ere

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) ordezkariak azaroaren 19an Nafarroako Parlamentuan izan ziren euren herrietako osasun etxe eta liburutegietan herritarren hizkuntza eskubideak zapaltzen zirela salatzeko, konponbidea eskatuz eta elkarlanerako prestu azalduz.

Agerraldi horren ondoren Aralar-NaBai eta Bildu talde parlamentarioek hala eskatuta Jose Iribas Hezkuntza kontseilaria eta Javier Morras Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak Nafarroako Parlamentuko batzorde banatan izan ziren pasa den ostegunean. Biek ere legea bete egiten dela adierazi zuten. Hala ere, euskara ezin dela inposatu esanez, administrazioaren euskalduntzea langile publikoen borondatearen neurrira egokitu beharreko zerbait bailitzan aurkeztu zuten. Gogora ekarri zuten administrazioko langile publikoak euskara ikas dezaten zerbitzu batzuk eskaintzen ditu Nafarroako Gobernuak, lanpostu batzuetan euskara meritu gisara baloratzen da.

UEMAko kideek gogora ekarri dute Euskararen Legeak herritarrei aitortzen diela eurek aukeratutako hizkuntzan atendituak izatea. Baina "Nafarroako Gobernuak ez du euskarazko zerbitzurik bermatzen eremu euskalduneko administrazio publikoan, ez eta udalerri euskaldunetako liburutegi eta osasun etxeetan ere". UEMAtik nabarmendu dutenez, "ez dago administrazioa euskalduntzeko planik, ezta borondaterik ere, eta hori bereziki kezkagarria da". Euskararen normalizazioaren bidea elkarlanean egiteko borondatea berretsi dute UEMAtik.

UEMA

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide izateko baldintzetako bat da, bertako biztanleen %70 baino gehiagok euskaraz jakitea. Eta Nafarroan errealitate soziolinguistiko hori betetzen duten 33 udalerri daude, udalerri horietan 35.000 herritar inguru bizi dira. Horietatik 14 udalerri dira UEMAko kide, ia 27.000 biztanle guztira, tartean Arbizu eta Etxarri Aranatz. Tipologia soziolinguistiko horretako udalerri nafarrek oso hizkuntza politika bereziak behar dituzte, eta UEMA behar horiei erantzuten saiatzen da. Izan ere, gaur egun beste administrazio batzuetatik ez dira udalerri horietako herritarren hizkuntza eskubideak bermatzen, eta ez dira, ezta ere, udal horiek eta herritar horiek dituzten behar linguistikoak asebetetzen.

SAKANA

Erantzun ederra jaki bankurako bilketan

8.933 kilo elikagai jaso ziren bi egunetan

Azaroaren 29an eta 30ean Altsasuko lau denda handitan Nafarroako Jakien Bankua fundaziorako elikagai bilketa egin zen. Fundazioak jakinarazi duenez, nafarrek 378.000 kilo jaki eman zituzten. Horiei Coviranek eta Eroskik emandako jakiak gehituz gero, guztira, 400.755 kilo jaki bildu ziren bi egunetan. Horietatik 8.933 kilo sakandarrek eman zituzten (BMn 2.248, DIAn 2.665, Eroski Centerren 3.177 eta 843 Eroski Cityn).

Sakanako bilketako arduradunek esan digutenez, "oso erantzun ona izan da". Beste ondorio bat ere izan zuen bilketak: denda horien ondoan eskean zeuden pertsonek normalean baino gehiago jaso zuten. Bi egunetan, txandaka, 37 pertsona egon ziren denda handietan elikagaiak jasotzen. Haietaz aparte, beste 5 pertsona batetik bestera ibili ziren.

San Silbestrean

Altsasuko urte akaberako lasterketako antolatzaileek Nafarroako Elikagai Bankurako jakiak bilduko dituzte. Gosarirako produktuak, olioa, lekaleak, arrain kontserbak... eramatea eskatu dute.

»

LHko Mendi Ertaineko Kirol-teknikaria zikloaren eskaintzak erantzuna handia

Sakana Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratu Publikoak mendi ertaineko kirol-teknikari ikasketak eskainiko ditu heldu den urtean. Maila ertaineko prestakuntza zikloa da. Abenduan sarrera proba egin zen, eta 32 pertsonak egin zuten aurrera. Horiei beste erkidegoren batean sarrera probaren bat gainditu dutenak gehitu ahal zaizkie.

Ziklo horretan interesa duten guztiek orain izena eman beharko dute. Epaimahaiak guztiak aztertuko ditu eta ondoren 24 ikasle aukeratuko ditu, mendi ertaineko kirol-teknikari ikasketak egin ditzaten. Bestalde, onartuak izan ez direnen sarrera proba 18 hilabeteko iraungitze data du eta aurrerago eman dezakete izena interesatuek.

Sakana LH IIPko eskaintza

Ziklo horretaz aparte, honako ikasketak egin daitezke: Motorren Mekaniko Laguntzailea (DBH gainditu ez duten ikasleei zuzendutako hasierako prestakuntza profesionaleko programa); Mantenu Elektromekanikoa (gradu ertaina); Soldadura eta Galdaragintza (gradu ertaina) eta Mekatronika Industriala (goi gradua).

Ikasleak lanean.

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta
Astelehenetik ostiralera
Eguneko menua
8,25€
Asteburuetan
Menu berezia 25€
948 467 876 · Altsasu

MAPFRE ALTSASU
Zorionak eta urte berri on!
J.A. Imaz Prim
Tel: 948 563 354 • Faxa: 948 562 151
San Juan, 48 • ALTSASU • jimazpr@mapfre.com

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisauak
Urte berri on!
Erregetarako opilak erreserbatu hemen!
Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

» Etxarri Aranatz

Langabezia, 9 hilabete beherako bidean

Azaroa akaberan lastailean baino 40 langabe gutxiago zeuden, 1.697

Otsailean 2.021 langabeturen errekor tristea lortu ondoren, langabezia hilero behera egiten hasi zen Sakanan. Bederatzi hilabetetan 424 langabe gutxiago daude ibarrean. Hala ere, 879 emakumezko (%,51,8, 19 gutxiago) eta 818 (%48,2, 21 gutxiago) gizonezko dira lan bila ari direnak. Adinari dagokionez, lan bila dauden gehienak 25 eta 44 urte artean dituzte, 766 (%45,14, 2 gutxiago). 45 urtetik gora eta lan bila dabiltzan 756 sakandar daude (%44,55, 20 gutxiago). 25 urte baino gazteago diren 175 sakandar daude lan bila (%10,31, 18 gutxiago). Sakanan Nafarroako langabeziaren (%3,31 dugu herrialdearen %3,22 populazioa gara).

Sektoreei erreparatuta, langabetuen %54,98k (933, 10 gutxiago) zerbitzuetan lan eginen luke. Langabeen %29,05 (493, 18 gutxiago) industrian ariko litzateke. Eraikuntzan lan egiteko prest legoke %7,84 (133, 1 gehiago). Lehen sektoreak, berriz, lan eskaeren %2 jaso du (34, 3 gutxiago). Azkenik, aurretik lanik egin ez eta lan bila dabiltzanak %6,13 dira (104, 10 gutxiago).

Langabezia udalerrika. Azaroa

Udalerria	Guztira	
Altsasu	833	-13
Arakil	68	-2
Arbizu	69	0
Arruazu	2	0
Bakaiku	15	-2
Ergoiena	6	-2
Etxarri Aranatz	155	- 1
Irañeta	9	-2
Irurtzun	201	-16
Iturmendi	17	-5
Lakuntza	88	+3
Olatzagutia	125	+5
Uharte Arakil	54	-4
Urdiain	29	0
Ziordia	26	-1
Guztira	**1.697**	**-40**

» Etxarri Aranatz

“Behartutako banderak ez dira banderak”

Etxarri Aranazko udaletxean Espainiako bandera jartzearen “inposaketaren” aurka ehunka pertsona manifestatu ziren

Franco hil zenetik ez da Etxarri Aranazko udaletxean Espainiako banderarik izan. Duela bi hilabete Nafarroako Auzitegi Nagusiak Espainiako bandera udaletxean jartzera derrigortzen duen sententzia plazaratu zuen. “Inposizio hori etxarriar gehienen kontra dago”, adierazi zuen Joxi Bakaikoa Etxarri Aranazko alkateak. *Gure ikurren alde, inposiziorik ez!* leloa zuen manifestazioan ehunka pertsonek parte hartu zuten igandean. Ikurrei omenaldia egin zieten eta euskal ikurrak osatzen zuten mosaiko erraldoia egin zuten etxarriarrek.

Espainiako bandera Etxarri Aranazko udaletxean jartzea “inposizio antidemokratikoa” dela esan zuen Bakaikoak. Hortaz, herritarren identitate askatasunaren kontra dago. “Behartutako banderak ez baitira banderak. Eraso politikorako tresna dira”. Herria errespetatuko duen estatus politiko, juridiko eta administratibo baten alde lan egitera gonbitea luzatu zuen Bakaikoak. Gaurko estatusean “guk ez daukagu lekurik” gaineratu zuen. Legegintza honetan herriaren kontrako kanpaina politiko, judizial eta mediatiko “izugarria” jasaten ari direla salatu zuen Bakaikoak.

Bertako ikur, erakunde, hizkuntza eta askatasunaren alde egin zen. ERKUDEN RUIZ

Inposiziorik ez

Igandean *Gure ikurren alde, inposiziorik ez!* manifestazioa egin ondoren euskal ikurrak modu sinbolikoan jarri zituzten Espainiako bandera “gurea ez den ikur bat” salatzeko. Nafarroako Auzitegi Nagusiaren sententziaren arabera Etxarriko Udalak bi hilabete ditu Espainiako bandera udaletxean jartzeko, bestela, hautetsiak inhabilitatuko lituzkete eta udalak isun handia jasoko luke. Herritarrek, aldiz, argi dute: “inposizio antidemokratikoa da”. Etxarriar gehienen kontra egiten duela azaldu zuen Bakaikoak. “Aldarrikatu nahi dugu ezin zaiola herri oso bati identitatea inposatu”. 200 bat etxarriarrek euskal ikurrak osatzen zituzten mosaiko erraldoia egin zuten haien ikurrak zeintzuk diren aldarrikatzeko.

+www.guaixe.net

»

Zorri azoka jendetsua

ERKUDEN RUIZ BARROSO

Zorri Azoka hileko lehen ostiralean ospatu ohi da. Igandean azoka sozialaren bertsio handitua ospatu zuten Etxarriko frontoian. Eguerditik gauera arte bertako produktuen ekoizleek eta artisauak haien produktuak eskaini zituzten. Eguberrietarako opariak erosteko leku aproposa izan zen. Produktuak ikusi, prezioak konparatu eta gustukoena erosteko aukera izan zen azokan.

Produktu ekologikoak, eskuz egindako bitxiak, margoak, eta abar ikusteko eta erosteko aukera izan zen. Egunean zehar jendea azoka bisitatzera animatu zen. Gainera, Batuta taldekoek pintxoak eta ardo egosia saldu zuten eta haien proiektuen berri eman zuten. Sakanako Ezgaituen Elkartea eskuz egindako produktuen salmenta egin zuen, eta Bocalan Biak Bateko txakur eta laguntzaileek erakustaldia egin zuten. Arratsaldean ikuskizunak izan ziren.

MOTZEAN

Mus zaleendako deia

Pasa den urtean 2.000 bikotek parte hartu ondoren, berriro martxan da Euskal Herriko Mus Txapelketa, Euskal Herriko Mus Federazioak antolatuta. Seigarren edizioko herriz herriko kanporaketak dagoeneko jolasten hasiak dira. Ilbeltzaren akaberarako despedituak izanen dira. Herrietan kartel bidez iragartzen dira non eta noiz jokatuko den txapelketako kanporaketa. Bikoteak izena emateko 20 euro ordaindu behar ditu.

Herri bakoitzean izena emandako bikote kopuruaren arora bikote gutxiago edo gehiago joanen dira herrialdeko kanporaketara. Horiek otsaileko hirugarren asteburuan jokatuko dira. Martxoaren 8a Heletan jokatuko den finalera 32 bikote nafar joanen dira. Parte hartzeagatik bikote bakoitzak sari bat jasoko du. Txapelketako maila bakoitzean onenei sariak emanen dizkiete.

Administrazioek dituzten enpresa datuen babesa aztertu du liburu batean Razkinek

Martin Razkin Lizarraga Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazio Zuzenbideko katedradunak liburu bat argitaratu zuen hilaren hasieran. Lan horretan dorrobarrak administrazio publikoek dituzten enpresa datuen babesa aztertu du. Iustel argitaletxeak argitaratu du liburua Ingeteam enpresarekin lankidetzan, eta Administrazioen gardentasun printzipioaren eta hirugarrenek bidegabeki erabil ditzaketen enpresa datuen beharrezko isilpekotasunaren arteko oreka bilatzeko beharrari buruz gogoeta egin du egileak. Liburuak bereziki aztertzen ditu konkurrentziaren babesa, kontratazio publikoa eta ingurumena.

» iturmendi

Eztanda Irratiaren sasoi berria

Iturmendiko Gazte Asanbladak sustatutako irratia sasoi betean da. Goizetan Gasteizko Hala Bedi irratiaren eta Iruñeko Eguzki irratiaren magazinak entzuteko aukera ematen du. Arratsalde eta gau partean sortze propioko saioak daude entzungai Eztanda Irratian (FM 107,7). Horiek ere beste ordutegi batzutan errepikatuta entzun daitezke.

Programazioa

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Igandea
8:00		**El barbero de Krikri**		**Retropolis**		
9:00		**Cuando Ruge la Marabunta**		**Vangelium**		
10:00	Suelta la olla	Suelta la olla	Suelta la olla	Suelta la olla	Suelta la olla	
11:00	Pasealeku	Pasealeku	Pasealeku	Pasealeku	Pasealeku	
12:00	Suelta la olla	Suelta la olla	Suelta la olla	Suelta la olla	Suelta la olla	
13:00				**Rebel Music**		
17:00		Vangelium			**Cuando Ruge la Marabunta**	
18:00	El Barbero de Krikri	Retropolis				
20:00		A desalambrar	Rebel Music	Cuando Ruge la Marabunta		
21:00					Txabales (21:30)	
22:00				Las chicas del callejon	Txabales	**Vangelium**
23:00	DJ Sergey	DJ Sergey	DJ Sergey	DJ Sergey	DJ Sergey	**Las chicas del callejon**

*Nabarmenduta daudenak, errepikatutako saioak dira.

SAKANA

SEEk SEPAri buruzko jardunaldia antolatu du

Otsailean jarriko da indarrean Europan Eurotan Ordaintzeko Eskualde Bakarra (Sigle Paymenst Area, SEPA, ingelesez). Horrekin ordainketa bideen europar sistema partekatu bat eta eskualde bakar bat sortuko dira. Hala, ordainketa elektroniko guztiak etxekoen parekotzat hartuko dira (kreditu- eta zor-txartelekin egindakoak edo banku transferentziak edo debitu direktoak bezala).

Sistema erabat ezarrita egotean, eurotan ordainketa merkatu bakarra izanen da, ordainketa guztiak integratuko diren, bai estatukoak bai nazioartekoak. Beraz, SEPA ordainketa baliabideek gaur egun eurotan ordaintzeko erabiltzen direnak ordezkatuko dituzte.

Enpresa eta norbanakoei aldaketa horiek ezagutarazteko Sakanako Enpresarien Elkarteak (SEE) jardunaldia antolatu du. Ilbeltzaren 14an izanen da, asteartean, 18:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. personal@aesakana.com e-postara edo 948 468 307 telefonora jo.

MOTZEAN

Elkartasun poteoa

Altsasuko Alde Zaharreko tabernak biltzen dituen Xurrut elkarteak (Lurrazpi, Urtzi, Xume, Gautxori, Koxka eta Arkangoa) Urte Zahar arratsaldeko poteoa kobratu eginen duela iragarri du. Joan zen urtean hasi zen edariengatik kobratzen. Gastuak kenduta lortutako dirua Nafarroako Jakien Bankuari eta Guaixe astekariari ematea erabaki dute. Aurreko urteko elkartasun poteoan Xurrutekoek jasotako dirua Josefina Arregi klinikarendako eta inauteri batzordearendako izan zen.

Inozenzio Aierbe gogoratzeko topaketa

Larunbatean, 13:00etan, Uharte Arakilgo Zamartzeko elizan

Bihar, larunbata, 101 urte beteko dira Inozenzio Aierbe jaio zela. 56 urtez Aralarko santutegiko kaperaua izandakoak arrasto handia utzi zuen Sakanan eta Euskal Herri guztian, 2001eko irailaren 22an hil zenean. Bizi zela, Aierberen lagun eta ezagunak berarekin urtebetetze egunean biltzen ziren, elkarrekin egon eta opariren bat emateko. Hura hilda ere, urtero-urtero, bere lagunak elkartzen segitzen dute. Bihar, esaterako, elizkizun batek elkartuko ditu.

SAKANA

Arabarako pistak aurki ibilgailu guztiendako erabilgarri

Araba eta Nafarroa arteko bidaia motzak egiten dituzten herritarrek, nekazaritza-ibilgailuek eta txirrindulariek aurki A-1 autobiara atera gabe joan etorriak egiteko aukera izanen dute.

Autobiaren hegoaldean dagoen pista ilbeltzeko aurreneko hamabostaldian asfaltatuko da. Iparraldean dagoen Eginorako bideari dagokionez, Sustapen Departamenduko teknikariak eta Ziordiko Udala harremanetan daude. Jesus Arrese alkateak azaldu digunez, "gaur egun toki batzuetan txirrindulari bat eta auto bat gurutzatzen badira, biek gelditu beharra dute. Horregatik, bide hori nola egin jakiteko ikerketa txiki bat eginen da". Beharrezko zabalera emateko eta segurtasuna bermatu ahal izateko lurzati batzuk desjabetu beharko dira.

Txirrindulari taldea autobiatik Eginorako bidean. ARTXIBOA

Geroa Baiko Manu Aierdik aurkeztuta zuen mozioa, eta pozik azaldu zen sen ona izan delako parlamentuan eta gobernuan. Mozioaren alde egin dute PSNk, Bilduk, Aralar-NaBaik, PPk eta I-Ek. UPNk kontra, arazoa konponbidean dagoelako.

Gobernuak autopistako bidesariak mantendu ditu

Kontsumo Prezioen Indizea negatiboa izan denez, Nafarroako Gobernuak erabaki du Nafarroako Autopistako (AP-15) bidesariak bere horretan mantentzea. Beraz, bide horretatik Iruñarantz joaten diren sakandarrek Sarasako ordainlekuan 2,15 euro ordaindu beharko dituzte autoz joaten badira. Kamioiek, tamainaren arabera, 2,75 edo 3,75 euro ordaindu beharko dituzte. Txartelekin edo telepeajearekin ordaintzen dutenei, aldiz, deskontua aplikatuko zaie, eta prezioak honakoak izanen dira: 1,22 edo 0,65 (itzulera doan) autoen kasuan; eta 1,15 pisuzko ibilgailuen kasuan.

Autoa autopistan.

Arakil

Epaileak 2012an arrazoia eman zion Tuterako Udalari: autopistek bidesaria dutenez zerga ordaintzera behartuta daude. Horregatik, halako azpiegiturak udalerrian dituzten udalek autopistei zergak kobratzeko aukera dute. Nafarroako Autopistak (AP-15) Arakilen 3.688 metroko luzerako tartea du eta joan den urtetik udalak zerga kobratzen dio autopistaren jabe den Audenasa enpresari. Heldu den urteko garagarzarora arte enpresak hobaria du eta zergaren %95 ordainduko du, baina ordutik aurrera %100.

Altsasu

ADEren Azarokoteko zareen irabazleak. UTZITAKOA

Probetxuzko sariak

Altsasuko Dendarien Elkarteak (ADE) hilaren hasieran sariak banatu zituen. Azaroan elkarteko kide diren establezimenduetan eroskетak egin zituzten bezeroen artean bost zare eder zozketatu zituen. Guztira, 4.000 euro saritan. Azarokoteko sariak Marivi Lizarragak, Nekane Zubizarretak, Dolores Guellok, Mikele Razkinek eta Graci Vitalek eskuratu zituzten.

ADEk Azarokotea moduko kanpainekin Altsasuko dendei bultzada eman nahi die, horrela, enpleguari eutsi ahal izateko. Denda txikiei euren irabazien %30-40 artean jaitsi zaie. Bestalde, ADEtik jakinarazi dute elkarteko hainbat dendek ilbeltzaren 5ean, domekan, zabaldu eginen dutela.

Etxarri Aranatz

Independentziari buruzko herri galdeketa bihar aurkeztuko dute

Bihar eguerdirako deituta dagoen prentsaurreko batean Etxarri Aranatzen egin asmo den Euskal Herriaren independentziaren inguruko herri galdeketa aurkeztuko dute. Horrekin batera, antolaketako xehetasunak emanen dituzte antolatzaileek.

Jakina denez, Etxarri 2012+1 herri ekimenak aurten autodeterminazio eskubidearen aldeko galdeketa egiteko asmoa azaldu zuen. Etxarriarrek galdera hau erantzutea nahi zuten: Ados al zaude Etxarri Aranatz, Euskal Herriko udalerria izanda, Europako estatu independente berri baten parte izatearekin? Galdeketa egin ahal izateko 27/2002 Foru Legean oinarritu zen eta proposamena udaleanaurkeztu zuen, 360 etxarriarren sinadurak babestuta. Udalak galdeketa eskaera bere egin zuen eta Nafarroako Gobernuari hura bideratzeko eskaera egin zion.

Etxarriar ugariren babesa jaso zuen auzitegiak baliogabetu zuen galdeketa.

Gobernuak auzitegirako bidea hartu zueneta arrazoia eman zion. Ekimenak alferrikako auzi-bideak ez abiaraztea eskatu zion udalari. Ekimenetik lanean segituko zutela iragarri zuten. +www.guaixe.net

Iortia Kultur Gunea

» Altsasu

Espektakuluak aurrera darrai

Duela hamar urte ireki ziren Iortia Kultur Gunearen ateak. Altsasuko herriak kultur ekimenak egiteko behar zuen eraikina zen. Hortaz, herriaren bizitza aldatu eta dinamizatu du. Hamarkada honetan 2.000 ekimen baino gehiago antolatu dira, eta erabiltzaileen kopuruak ere gora egin du.

10 urte hauetan helburuak bete direla adierazi du Iortia Kultur Guneko teknikari Betisa Andak.

Erkuden Ruiz Barroso

Bengoetxea zinema itxi zutenetik, 1980ko hamarkadan, herritarrek zine areto bat eskatzen zuten. Orduko kultur etxea, Gure Etxea, erakusketak egiteko erabiltzen zen eta txiki gelditu zen, eta antzerkiaz gozatzeko aukera ere ez zegoen. "Pentsaezina zen hainbat antzezpen, pelikula edo erakusketa herrian ikustea baldintza teknikoak aproposak ez zirelako", adierazi du Betisa Anda Altsasuko Kultur teknikariak. Iortia Kultur Guneak kultur arloan ziren gabeziei aurre egiteko sortu zen, eta helburuak bete direla esan du Andak.

Domingo Lumbier ikastetxea zegoen lekua hartu zuen Kultur Guneak. 3.000 metro koadro kulturari eskainita. Eskola zaharra ez botatzeko mugimendua sortu zen arren, 2000. urtean Kultur Gunearen eraikuntza hasi zen. Bi urte ondoren amaitu zen Loperena Portillo eta Javier Flores arkitektoek diseinatutako eraikina. 2003ko apirilaren 4an ofizialki mustu zuten. Camino Mendiluze zen orduko alkatea, eta Kultur Gunearen beharra eta Altsasuko bizitzan paper garrantzitsua beteko zuela azpimarratu zuen mustutze ekitaldian.

Espazioa

Iortia Kultur Guneak kultura arloko diziplina guztiak hartzen ditu: arte erakusketak, zinema, antzerkiak, musika emanaldiak, dantza, eta abar. Gainera, eraikinean udal liburutegia kokatzen da. Ikusentzunetarako bi areto daude; areto nagusiak 300 bat pertsonarendako eserlekuak ditu eta 168 metro koadroko eszenatokia. Hainbat ekitaldi ospatzeko aukera ematen du, baliabide teknikoak aproposak baitira. Areto txikiak 100 bat pertsonarendako tokia eskaintzen du. Bietan harmaila aldapa behera kokatuta dute. Erakusketa gelak 235 metro koadro ditu. Gainera, 165 metro koadroko balio anitzetarako sala ere badago, non 150 aulkirako lekua dagoen.

Herritarrek erantzun dute

Hamar urte pasatu dira eta Kultur Gunean hamaika artista izan dira. Programazioa egiteko eskaintza aztertzen dutela azaldu du Betisa Andak. Publikoa kontuan hartzen dute, baita emanaldien kalitatea ere. Hainbat irizpidetan oinarritzen dira Kultur Gunera zer eraman erabakitzeko; emanaldien generoa, musika, dantza, antzerkia edota komedia, drama den, eta abar. Herriko taldeekin hitz egiten dute eta egin nahi dutena eta datak aztertzen dituzte. Garrantzitsua da urteko aurrekontua ere. 2012tik aurrera Noaingo eta Arangureneko Kultur Etxeekin batera programatzen saiatzen dira, formatu eta tamaina handiagoko gauzak ekarri ahal izateko, hortaz, 3 besaulkia zirkuitua sortu dute.

Zenbaki potoloak

Iortia Kultur Gunearen programazioa anitza da. Hamarkada honetan 2.000 ekitaldi baino gehiago izan dira. 897 pelikula eman dira, gaurkotasunezko, zine forum eta familiendako filmetan ezberdinduta. Musika emanaldiak, dantza erakustaldiak, antzerkia eta bestelako zuzeneko emanaldiak 469 izan dira. Erakusketa gelak 111 erakusketa hartu ditu, eta 581 aurkezpen edo hitzaldi izan dira. Talde politiko, sindikatuen eta enpresen ekimenak ere hartu ditu. Talde eta artista berrien sorlekua da: "Iortiaren itzalera herriko talde edota artistek bere lana aurkezteko parada izan dute, eta honetaz gain berritzea eta aktiboagoak izatea ekarri du. Gainera, taldeen arteko lankidetza izan da, eta talde berriak ere sortu dira", azaldu du Andak.

Haize Berriak musika bandak eta Erkudengo Ama abesbatzak bertan entseatzen dute. Kultur sailak antzerki tailerra antolatzen du, eta hortik Tarima Beltza antzerki talde iraunkorra sortu zen. Sakanako artistek Arte Azoka ospatu dute bigarren urtez aurten; haien obrak erakusteko eta saltzeko aukera izan dute. Iortiatik pasatu diren artistak asko izan dira: Jose Ramon Anda, Dora Salazar, Javier Morras, Koldo Arnanz eta Itziar Nazabal, besteak beste.

Iortiaren garapena eta herritarren parte hartzea eskutik joan dira. Hamar urte hauetan 300.000 herritar baino gehiago izan dira Kultur Guneak antolatutako emanaldietan. Herriko talde artistikoen proposamenak arrakasta handia izaten dutela esan du Andak, baina azken aldi honetan programatutako gauza guztietan aretoak bete dituztela azaldu du. "Ezingo nuke emanaldi bat aukeratu". Publikoaren erantzuna ikusita zinemak irabazi du lehen postua, 115.000 ikus-entzuzle baino gehiago izan ditu hamarkada honetan. 100.000 pertsona baino gehiagok zuzenekoez disfrutatu dute. Erakusketak ikustera 60.000 baino gehiago gerturatu dira. Aurkezpenetan, hitzaldietan eta bestelako ekimenetan parte hartu dutenak 21.000 baino gehiago izan dira.

www.iortiakultura.com

Hamargarren urteurrenaren harira web gunea mustu dute. Han Kultur Gunean izango diren emanaldien informazioa eta data eta ordua ikusteko aukera dago. Gainera, sarrerak online erosi daitezke ere.

Zinemarako sarrerak 5 euroko balioa dute, eta 3 eurokoa umeendako.

Abonamendua: zortzi sarrerako bonoak 30 eurogatik bost sarrerakoa 20 eurogatik hiru sarrera 12 eurogatik.

»

Literaturaren gunea

Kulturaren adiera guztiak hartzen ditu Iortia Kultur Guneak, baita literatura ere. Duela hamar urte liburutegia Labadero eraikinetik Kultur Gunera lekualdatu zen.

3.472 bazkidek dute liburutegiko txartela.

Erkuden Ruiz Barroso

Labaderotik Iortia Kultur Gunera egindako lekualdaketak kuantitatiboki eta kualitatiboki aldaketak ekarri zituen. Liburutegiak 680 metro koadro ditu, Labaderoan zegoen liburutegiarekin alderatuta 430 metro koadro gehiago. 20.000 dokumentu baino gehiagok osatzen dute bilduma. Eraikina bederatzi arlotan banatuta dago: beheko solairuan umeendako lekua eta umeendako liburuak mailegatzeko gunea, gazteendako gunea, hemeroteka, ikus-entzunezkoak, ordenagailuen tokia eta helduendako liburuen maileguendako guneak daude. Goiko solairuan ikasteko gunea eta kontsultarako obrak daude, baita taldeendako bi sala ere.

Hamar urte hauetan bazkide berriak egin dira. 2002an, Labaderon izandako azken urtean, 2.673 bazkide baziren, gaur egun 3.472 bazkidek dute liburutegiko txartela. Horrek, dokumentuen maileguetan ere eragina izan du. Hamarkada honetan bataz besteko 13.000 liburu mailegatu dituzte urtean. 2009an 11.764 ikus-entzunezko mailegatu zituzten, DVDak gehien bat, bilduma handitzen zihoan bitartean. Hortik aurrera beherakada txiki bat izan da eskaintza txikiagoa baita (2009an aurrekontua 12.000 eurokoa zen, hortik aurrera 7.560 eurokoa). Hortaz, 2012. urtean 7.285 ikus-entzunezko mailegatu ziren. Liburutegian 6 ordenagailu daude. Bi umeen gunean eta lau ordenagailuen gunean. Kontsultak egiteko beste ordenagailu bat dago. 2008tik aurrera WIFI zerbitzua eskaintzen du liburutegiak.

Liburutegian liburuak mailegatu baino gehiago egin daiteke. Liburuekin disfrutatzeko aukera ere ematen du. Hortaz, hilabeteko azkeneko ostiraletan Ipuinen Gunea antolatzen du umeendako. 5.000 ume baino gehiago izan dira hamar urte hauetan ipuin kontalariekin disfrutatzen. Emakumearen Bilgunearekin batera, gainera, solasaldi literarioak antolatzen ditu. 2007tik aurrera liburutegiaren nondik norakoak eta mailegu zerbitzuaren inguruan kontsultatzeko aukera dago www.bibliotecaspublicas.es/altsasu web gunean.

SAKANA

Urte zaharra eta asmo berriak

Asteartean beste urte bat despedituko dugu, 2013a. Sakanan hainbat modutara eginen diogu ongi etorria, berezko ohiturak mantenduz.

Irañetan, ordu batean elkartean elkartuko dira, handik etxez etxeko kantu eskea abiatzeko. Ur goiena kantaren truke jasotako jan-edan guztiak abeslariek elkarteak dastatuko dituzte gero. **Arruazu**n gauerdian iturriko ura jaso eta herrian barna banatuko dute, urte berriari kantatuz. **Lizarragabengoa**n ere etxez etxe ibiliko dira *Ur goiena* kantan eta eskean.

Etxarrin ordu batean plazan topa egitera elkartuko dira. *Ur goiena* kantuarekin elkarri urte ona opako diote. Segituan kalez kale kantari abiatuko da aurreneko taldea. Bigarrena, ordu bietan abiatuko da, kantu eskean. **Iturmendi**n, berriz, gauerdia pasata kintoak etxez etxeko errondan ariko dira, kantu eskean, urte berria zoriontzen. Esker onez pastak eta edatekoa eskainiko dituzte.

Urdiainen gauerdiaren aurretik apaizaren etxe inguruan elkartuko dira. Urte berriko aurreneko ezkila hotsekin nesaki eta mutikiak iturrietara joanen dira pitxerretan ur berria hartzera. Eliz etxean bueltan, urdiaindarrek *Ur goiena, ur barrena* kantaita abestuko dute. Agintariek ur berriaren truke opil goxoa emanen diete, aurrena gazteei, eta gero herritar guztiei, urte osasuntsua opatuz.

Erregeak

Ekialdeko erregeak bidean dira

Meltxor, Gaspar eta Baltasar Sakanara iritsiko dira ilbeltzaren 5ean.

Irurtzun

Erregean segizioa 18:30ean Liburutegiko plazatik abiatuko da. Magoak karroza eta opariz beteriko gurdia Larraun, Intxaurreta, Lizarra, Andia, Lizarra, Amaia eta San Martin kaleetan barna ibiliko da. Bidean gabon kantak abestuko dira. Aurten magoen gurdian egonen den pantaila batean haien istorioari buruzko pasarte labur batzuk ikusteko aukera izanen da.

Elizpea kaletik elizara helduko dira. Han Jesus haurtxoa gurtu ondoren elizara sartuko dira. Irurtzundarrek, abesbatza buru dutela, harrera eginen diete. Ondoren, magoek irurtzundar txikiekin egon eta haiei goxokiak banatzeko aukera izanen dute.

Uharte Arakil

Erregeen Kabalkada Manuel Goikoetxearen zurgindegitik abiatuko da, 18:30 aldera. Errege bakoitza gurdi batean joango da, aingerutxoak lagunduta (jaunartzea egiten duten neska-mutikoak). Aurten lauzpabost gaztetxo izanen dira, eta erregeekin batera igoko dira gurdietara. Kabalkadak herrietako kaleetatik barna buelta eman eta gero, hiru erregeak elizan sartuko dira, Jesus haurtxoa adoratzera. Ondoren, txikienek erregeekin hitz egiteko eta gozokiak eskatzeko aukera izanen dute. Errege magoen omenezko abestiak ez dira faltako.

Bestetik, erregeek herriko gaixo eta adinduak bisitatuko dituzte, oparitxo bana emateko. Erregeek 16:00etatik 18:30 inguruan gaixoak bisitatuko dituzte eta ondoren kabalkadari hasiera emanen diote.

Lakuntza

Ilbeltzaren 4an, larunbatean, 17:00etatik 19:00etara Errege Magoen laguntzaileak Lakuntzako elizaren atarira etorriko dira, haurtxoek idatzitako eskutitzak jasotzera.

Errege Bezperan, ilbeltzaren 5ean, Igandeko kabalkadan makina bat karroza aterako dira: izarra, Herodesen karroza, trineoa, zirkua, piraten ontzia, Hobbits-en karroza eta iratxoa. Jakina, buruan Meltxor, Gaspar eta Baltasar joanen dira, zaldietan, eta haiei laguntzen pajeak eta antortxadunak. Ibai aldetik helduko dira erregeak meza ondoren, eta Abarrategi kalean gora eginen dute, segidan herri guztiari buelta emateko. Tronpeta joleek gozoki z kargatuta etorriko dira erregeen etorrera iragarriz. Kabalkadak herriari buelta eman ondoren, elizan zain egonen dira Jose, Maria eta Jesus haurtxoa, erregeen etorreraren zain. Adorazioaren eta koroaren kantuen ondoren erregeek opariak banatuko dizkiete Lakuntzako haurrei.

Informazio guztia jasotzeko: http://erregeaklakuntza.blogspot.com.es.

Arbizu

Hiru erregeak 18:00eak aldera aterako dira Arbizuko udaletxetik. Gurdi dotorearen gainera igota, arbizuar guztiak agurtuko dituzte. Oparitxo beteriko gurdiarekin batera kalejira eginen dute Gabon doinu alaiekin. Herriari buelta emandakoan, 19:30ak aldera, elizara iritsiko dira. Bertan, hiru erregeek Jesus haurtxoa gurtuko dute. Ondoren, goxokiak banatuko dizkiete herriko haurrei eta bertaratzen direnei.

Ergoiena

Lizarragako haurrek errege bezperan, ilbeltzaren 5ean, goiz-goizetik iragarriko dute erregeak datozela, fale hotsekin. 18:00ak aldera iritsiko dira erregeak Lizarragara. Globoz apaindutako gurdi dotorean herriko kaleak zeharkatuko dituzte Meltxor, Gaspar eta Baltasarrek. Haiekin batera joanen dira Jesus haurtxoa, Maria eta Jose. Lizarragari buelta eman ondoren, gurdiak Dorraorako bidea hartuko du, haurrez beteriko kamioia eta zenbait kotxe atzetik dituela. 19:00ak aldera iritsiko dira Dorraora. Herritarrekin batera, kantuan eta dantzan plazara iritsiko dira. Herriko elkartean indarrak hartzeko aukera izanen dute. Jarraian Unanura joko dute. Bertako haurrak ere erregeak ikusteko irrikitan izanen dira. Unanuarrek herriko plazan agurtuko dituzte Meltxor, Gaspar eta Baltasar, pasta eta moskatel artean. Handik, atzera ere, Lizarragako bidea hartuko dute. Bertan, elkarteko sutondoaren epelean, prest izanen dute afari goxoa nahi duten guztiendako: zopa beroa, oilaskoa eta roskoa. Adin guztietako 100 bat erguendar bilduko dira bertan.

Hurrengo eguneko Lizarragako meza nagusian erregeek ere parte hartuko dute, eta elizkizunak despeditzerakoan apaizarekin, txistuaren doinuak lagun, gaixo daudenen eta edadetuenen etxera joko dute, haiek Jesus haurtxoa gurtu dezaten.

Etxarri Aranatz

Errege bezperan Etxarriko haurrak faleekin elizatik aterako dira kalera, erregeak 19:00etan datozela iragartzeko. Elizako atera bi gurditan iritsiko dira, aurrena magoendako eta morroiendako, eta bigarrena, Misterioarendako. Errege segizioak Etxarriko kaleetan barna buelta emango du, ibilbidea frontoian bukatuz. Frontoian Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek gutun bana irakurriko dute eta haurrek opariak eskatzeko aukera izanen dute. Jarraian, Etxarriko haurrak errenkadan jarriko dira erregeei muxu emateko. Trukean goxoki poltsa jasoko dute.

Hurrengo egunean, ilbeltzaren 6an, Meltxor, Gaspar eta Baltasar meza nagusian egonen dira. Meza amaitutakoan zozketa eginen da. Izan ere, aurreko hiru egunetan gabonetako ospakizun berezietan parte hartu duten haurren artean opariak banatuko dira.

Bakaiku

Larunbatean, 17:00etan, ekialdeko magoen morroiak udaletxean izanen dira Bakaikuko haurrek haiendako idatzitako gutunak jasotzeko. Bildutako guztiei morroiek iragarriko diete erregeak domekan, 18:30 aldera iritsiko direla beheko baso aldetik. Harrera egin ondoren, akordeoilarien doinuak lagun, Meltxor, Gaspar eta Baltasar herrian barnako bisitan gidatuko dituzte. Hura elizan despedituko da. Hiru erregeek Bakaikuko txikiekin egoteko aukera izanen dute, eta ekarri dizkieten opariak banatuko dizkiete.

Iturmendi

Herriko haurrak 15:00ak aldera bilduko dira. Faleak aldean dituztela batera eta bestera ibiliko dira, ekialdeko magoei hoska. Egiteko horren ondoren, auzoan film bat ikusteko aukera izanen dute. Txokolate edanak segituko dio horri. Hiru erregeen segizioa 19:00ak alderako espero dute Iturmendin. Harrera egin ondoren, kalejira eginen dute herrian barna. Ibilbidea frontoian despedituko da eta han Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek eta haien laguntzaileek opariak eta goxokiak banatuko dizkiete haurrei. Helduendako jan-edana izanen da.

Altsasu

Magoeen etorreraren iragarle izaten dira haien morroiak, ilbeltzaren 3an, ostiralarekin, iritsiko dira Altsasura, 6 laguntzailerekin batera. 19:00etan herriko txikien gutunak jasoko dituzte Burunda pilotalekuan. Guztiek oparitxoren bat jasoko dute.

Hiru errege magoak ilbeltzaren 5ean, domekarekin, iritsiko dira Altsasura. Fara-erregeak erakutsiko die bidea. Hain zuzen ere arratsaldeko 18:00etan aukeratuko dute faleen erregea Foru plazan. Bildutako haur guztiei esne-opila banatuko diete, eta barruan fara topatzen duen haurra izango da burua. Fale-erregea buru dela, herriari buelta emango diete haurtxoek, farak joz erregeei abisua eman eta bidea erakusteko. Horretaz gain, errege-heraldoaren karrozan egingo du ibilbidea fara-erregeak.

Errege-heraldoa Foru Plazara joango da, magoak datozela abisatzeko. Fara erregearekin batera LHko ikastetxera hurbilduko da errege-heraldoa, bertatik sartuko baitira Altsasura magoak 19:00etan. Bakoitza bere karrozan joango da, eta horiez gain beste karroza batzuk izanen dira: izarraren karroza, erret-heraldoaren karroza –bertara igoko da faleen-erregea–, jostailuen karroza eta mozorrotutako haurren karroza. Altsasuko ikastetxeetako gurasoen elkarteek izaten dute karrozak prestatzeko ardura, errege kabalkadaren batzordeaz gain.

Hiru erregeen segizioak Altsasun ohiko ibilbidea eginen du. Pasarte antzeztuak izanen dira bidean. Haietan erregeek, Altsasuko antzerki tailerreko kideek eta zenbait herritarrek parte hartuko dute. Ibilbide guztian barna ez dira gozokiak faltako. "Zurronero" delakoak ere neska-mutiko txikienei eskura emango dizkiete gozokiak. Kaputxinoen egoitzan agurtuko dituzte altsasuarrak.

Olazti

Erregeen pajea izanen da Olaztira iristen lehena. Olaztiko kultur etxera iritsiko da ilbeltzaren 4an, larunbatarekin, 18:30ean. Erregeen etorrera iragarriko du eta herritarrek idatzitako gutunak jasoko ditu.

Egun handia ilbeltzaren 5ean izanen da. Meltxor, Gaspar eta Baltasar jubilatuetatik abiatuko dira, 18:30ak aldera. Errege bakoitza bere karrozan joanen da, pajeak eta antortxadunak alboan dituztela. Herriari buelta eman ondoren, herriko frontoian despedituko da ibilbidea. Jakina, gozokiak ez dira faltako eta txokolate bero-beroa hartuko dute bildutakoek. Neska-mutikoek erregeekin hitz egiteko eta haiei musu emateko aukera izanen dute.

Ziordia

Hiru Erregeak 19:00etan iritsiko dira Ziordira ilbeltzaren 5ean, Olazti aldetik, zaldiz. Ordurako zain izanen dituzte ziordiarrak harrera beroa egiteko prest. Trikitixak lagunduta kalejira eginen dute herriko karriketan barna, eta bukaeran errege segizioa elizaraino iritsiko da. Bertan Jesus haurtxoa gurtuko dute. Ondoren, haurrek erregeekin egoteko aukera izanen dute: gutunak irakurri, musutxoak eman eta haien eskuetatik gozokiak jasoko dituzte. Elizatik aterata, erregeek eta ziordiarrek mojen etxerako bidea hartuko dute. Bertako gaixoak bisitatu, eta datorren urtera arte agurtuko dituzte erregeak.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA
948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

Zinena beti hiltzen da
beste zerbait izateko.

2013an hildako gure bazkide
eta bezeroak gogoratuz.

bierrik
fundazioa

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu

Bidali mezua zorion@guaixe.net-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

Oroigarriak egiten ditugu
Nahi duzun argazki eta testuarekin
Foru plaza 23-1 Altsasu · 948 564 275 · argi@guaixe.net
Guaixe KOMUNIKAZIOA

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK
2 TEKNOLOGIA
3 LANA/NEGOZIOAK
4 DENETARIK
5 IBILGAILUAK
6 HARREMANAK
7 AISIA/KIROLA
8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Pisua aldatu. Arbizun 3 gelako pisua (ganbara eta bajerarekin) aldatzen da 4 gelako pisu-etxeagatik. Baldintzak negoziatzeko prest. Kontakturako telefonoa: 653- 72 64 76.

Opatutakoak / galdutakoak

GALDUTAKOAK

Txakurrak bilatzeko koraile beltz bat. Galdu dut. Garmin markakoa da. Aurkitu duenak, 696 33 66 47 telefonora dei dezala. Eskertuko da.

Ikastaroak

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea http://www.ifes.es.

Forem Navarra – CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org.

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es.

Lehiaketak

Euskararen Ginkana. Antolatu du Kutxa Ekoguneak Euskaltzaleon Topagunearen laguntzarekin. 3.000 € jasoko ditu talde irabazleak. Abenduaren 3tik urtarrilaren 16ra. Informazioa www.euskararenginkana.net webgunean.

ETBko lehiaketarako lehiakideak. Hizkamizka lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura orokorreko galderei erantzun beharko diete. Interesatuek euren datuak eta kontakturako modua hizkamizka@eitb.com e-postara bidali beharko dute.

Oharrak

Tartalariendako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrontean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzen: http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

CAF-ELHUYAR beka. Zientziaren/teknologiaren eta gizartearen arteko elkarrekintza landuko duten proiektuei lagundu nahi die sariketak. Proiektuen izaera zientifikoa, artistikoa zein soziologikoa izan daiteke, eta arlo zientifikoa eta soziala harremanetan jartzea izan behar du haien muinak. Ilbeltzaren 31ra arte. Saria 5.000€. Informazioa: www.elhuyar.org.

Haurraren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Etxeko lantxoak – trukea. Informazio gehiago larrezabaldk@inigoaritza.com.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com.

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatrikulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioa, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalei, eta baita etorkin beraiei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzen, astearteetan Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikoan.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen astearteetan, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaitez Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzen du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

Iparraldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen Ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduan egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleen garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxan hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

Emakumeendako doako aholkularitza juridikoa. Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko mantenu-pentsioa, tratu txarrak sufritzen ari bazara, dirurik ez baina dibortziatu nahi duzula, izatezko bikotearen eta ezkontzearen aldeak... Emakumearen Bilgunera jo, Altsasuko Gure Etxean (948 564 823 edo berdintasuna@altsasu.net).

JAIOTZAK

- **Intza Resano Oiarbide,** abenduaren 13an Dorraon.
- **Iraide Vera San Roman,** abenduaren 13an Altsasun.
- **Olaia Goñi Sanchez,** abenduaren 13an Etxarri Aranatzen.
- **Houyam Hamdi,** abenduaren 16an Lakuntzan.

HERIOTZAK

- **Maria Jesus Jimenez Aguilar,** abenduaren 19an Olaztin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

AIZKORA

NAZABAL-ZUBIAGA URREZKOAN: Binakako Urrezko Txapelketa hastear dago. Elite mailan 6 biko ariko dira, eta Floren Nazabal etxarriarrak Jose Angel Zubiaga arabarrarekin osatuko du bikotea. Zilarrezko mailan 12 bikote lehiatuko dira.

kirola >>

Atletismoa

Urteari agur KORRIKAN

35. SAN SILBESTREA HARTUKO DU ALTSASUK ETA 12. LASTERKETA OLATZAGUTIAK

Korrikalariek urtea gehien gustuko dutena egiten despedituko dute: korrika. Gure korrikalariendako, akaso, proba herrikoienak eta gertukoenak dira San Silbestreak. Sakanan bi ditugu. Aurten 35. edizioa beteko du Altsasuko San Silbestreak, eta Olaztiko probaren 13. edizioa izanen da jokoan.

Nafarroako zaharrena

Dantzaleku-Sakana klubak eta Sakana Triatloi Taldeak antolatuta, aurten 35. edizioa beteko du Nafarroako proba beteranoena denak. Aipatu proba Mario Memoriala izendatu zuten, bertan 17 urtez gailendu zen Mario Lopez de Uralde korrikalari altsasuarraren omenez.

Haurrak 18:00etan eta helduak 19:00etan

Asteartean, arratsaldeko 18:00etan emanen diote hasiera lasterketari, gaztetxoenen lasterketarekin. Aurrebenjaminak (400 m), benjaminak (800 m) eta kimuak (1.200 m) ariko dira, plazatik abiatuta. Berrikuntza moduan, haurren kategoriakoek helduenean parte hartzeko aukera izango dute, zirkuituari buelta bat eman eta kiosko aldera ateraz, euren denbora hartzeko (1,5 km). Helduen proba osoa bukatu nahi badute, egin ahalko dute "baina beti aurretik euren kategoriako lasterketa osatu badute eta proba nagusian senitarteko batek lagunduta aritzen badira" adierazi digu Dantzaleku Sakanako Peio Bergarak.

Kadeteak, jubenilak, seniorrak eta beteranoak 19:00etan udaletxe aurretik abiatuko den proba nagusian ariko dira. Altsasun barna prestatutako zirkuituari 3 buelta eman beharko dizkiote, guztira 5 km metro osatuz. Foruen Plazan egongo da helmuga. Probako lehen hiru gizon eta emakumezkoek trofeoa jasoko dute, eta lehendabizikoek txapelak. Lasterketa ikusten dutenei eta korrikalariei Leku Onako Aitor Etxeberriak prestatutako salda bero goxoa eskainiko zaie.

Probak irauten duen bitartean, 19:00etatik 19:45era, trafikoa moztuko da, "inolako arazorik ez izateko". Antolatzaileek urtea korrika egiten despeditzera animatu dute. "Lasterketarik herrikoiena da hau; oso polita izaten da. Dagoeneko jende gazte askok eta emakume askok eman dute izena. Ea haurren eta helduen artean 500 parte hartzaileetara iristen garen" gaineratu du Bergarak. Aurreko urtean 400 korrikalari inguru aritu ziren, eta helduetan Tasio Gomez gipuzkoarrak eta Maite Beregaña uharteara gailendu ziren.

Izena emateko: www.dantzalekusakana.com

Izena ematea dohainik da, eta web gunean egin daiteke, astelehenera arte. Bestela, egunean bertan izena emateko aukera egongo da, 18:30ak arte.

Aldaketak **Olaztin**

San Silbestre lasterketaren 12. edizioa jokatuko da asteartean Olatzagutian, 18:00etan. Sutegi elkarteak antolatutako lasterketetan aldaketa batzuk izanen dira. Aurten 4 kategoriendako lasterketak antolatu dituzte: txikiak, 7 urtera artekoak (300 m), 8-11 urte bitartekoak (600 m), 12-15 urte artekoak (zirkuituari itzuli bat, 1.240 m) eta helduak. Kasu honetan herri gunean antolatutako zirkuituari 4 bira eman beharko diete korrikalariek, 5 km osatzeko. Proba 18:00etan hasiko da, eta frontoia izango du irteera eta helmuga. Proban izena eman nahi duenak lasterketa aurretik irteeran jarritako mahaitik pasa beharko du, 17:00etatik aurrera.
Giro polita izaten da Olaztiko proban, eta bukaeran sariak eta opariak banatuko dira Aurreko urtean 109 korrikalari lehiatu ziren guztira eta helduen proban Raul Audikana eta Teresa De Celis nagusitu ziren.

Elikagai Bankuarendako elikagaiak bilduko dira Altsasun

Dantzaleku Sakana gutxienen dutenekin gogoratu da Nafarroako Elikagai Bankuarekin kolaboratzea erabaki du. Horrela, Gure Etxean kaxa erraldoiak jarriko dituzte, eta San Silbestrea jarraitzea datozenei eta korrikalariei elikagai iraunkorrak ekartzeko gonbitea egin die klubak. Jasotakoa Elikagai Bankuari emango zaie.

Txirrindularitza

San Silbestrea bizikletan

URBASARA BI IGOERA EGINEN DIRA: LEHENA ZIKLOTURISTENDAKO, ETA BIGARRENA LEHIAKORRA

Sociedad Deportiva Alsasuak Altsasuko Udalaren laguntzarekin antolatutako San Silbestre bizikleta martxak 31. edizioa hartuko du aurten. Elkarteak Urbasara bi igoera antolatu ditu. Lehenengoa 15:45ean abiatuko da, eta zikloturistendako izango da. Bigarrena, 16:15ean irteera emango zaiona, proba lehiakorra izango da. "Gure proba hasiera batean urtea bizikleta gainean bukatzeko intentzioekin egiten zen, lagun artean. Baina azken aldian, oso lehiakorra bihurtu da. Bi lasterketekin, lehiatu nahi dutenek eta arratsalde on bat pasatu nahi dutenek parte hartzeko aukera izango dute" adierazi digu SDAko Pablo Colinak.

Urbasara Altsasutik

Urbasako igoera Altsasutik egingo da, eta txirrindulariek Urbasako tontorrera heldu beharko dute. Igo ondoren salda beroa hartzeko aukera izango da, gorputza berotzeko. Proba despeditu eta gero, Sociedad Deportivako tabernan oroigarri bat jasoko dute txirrindulariek, dortsala bueltatzerakoan. Bertan eginen da ere sari banaketa, 17:30ean.

Izen ematea

Proba hasi baino lehen Sociedad Deportiva Alsasuan. Federatuek 7 euro eta federatu gabekoek 10 euro ordaindu beharko dituzte.

Aurreko urteko zikloturisten probaren hasiera.

Martinez, Azanza eta Verdugo oraindik talderik gabe

Ilbeltzean hasiko da txirrindularitza denboraldi berria eta badira, oraindik, etorkizuna zein izango den argi ez duten txirrindulariak. Pablo Urtasunek, aurkitu du, momentuz, txirrindularitzan jarraitzeko bidea. Urdiaindarra Pino Road talde txiletarrean ariko da. Egoi Martinez, Gorka Verdugo eta Jorge Azanzak oraindik ez dute talderik aurkitu eta etorkizuna airean dute.

Luisle Rural Kutxara

Sakanatik sortutako Rural Kutxa talde profesional kontinentalak Luis Leon Sanchez txirrindularia fitxatu du urte baterako. Fitxaketa inportantea egin du Rural Kutxak. Astelehenean eginen dute taldearen aurkezpena, Iruñean.

PPSOE,
ETB digitala
Nafarroan orain!
Berria erosi taldea

GANUZA SUKALDEAK
Sukalderako altzariak
Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Etxetresna elektrikoak
Tel: 948 460 203 Fax: 948 460 673
c.ganuza@cocinasganuza.com
www.cocinasganuza.com
Etxarriko industrialdea
ETXARRI ARANATZ

Sorgiñak taberna
LAKUNTZA
948 576 357

Pilota

Txanponaren bi aldeak

XALAK ETA ZUBIETAK IRABAZIZ ETA EZKURDIA-ZABALETAK GALDUZ HASI DUTE BINAKAKOA

Binakakoa. 1. jardunaldiko emaitzak:

Xala-Zubieta **22** / Urrutikoetxea-Beroiz **20**
Olaizola II.a-Aretxabaleta **22** / Berasaluze II.a-Albisu **21**
Titin III.a-Merino II.a **22** / Ezkurdia-Zabaleta **19**
Bengoetxea VI.a-Galarza **22** /Jaunarena (Irujoren partez)-Barriola **19**

Binakako hasierako ligaxkako lehen jardunaldia jokatu da eta pilotari sakandarrek txanponaren bi aldeak ezagutu dituzte. Xalak eta Zubietak 22-20 irabazi zieten Urrutikoetxea eta Beroizi larunbatean Bilbon. Aldiz, igandean, Eibarren, Titinek eta Merinok 19 tantotan utzi zituzten Ezkurdia eta Zabaleta.

Xala-Zubieta eta Urrutikoetxea-Beroizen arteko lehia luzea izan zen, ia bukaezina. 101 minutu izan zituen eta 964 pilotakada jo zituzten pilotariek. Partida gogorra izan zen, oso parekatua. Lapurtarra izan zen partidako onena. Nahiz eta Urrutikoetxeak eta Beroizek partidaren zati handi batean dominatu –8-13 aurreratu ziren–, Aspekoek behetik gora egin zuten. Zubietari kosta egin zitzaion, baina partida erditik aurrera gustuko pilota topatu zuen eta gora egin zuen. Partida estuan, Xalaren kalitateak erabaki zuen eta, horrela, lehen puntua lortu zuten Aspekoek.

Ezkurdiak eta Zabaletak, aldiz, ezin izan zuten txapelketa irabazten hasi. Titin eta Merino errioxarren kontra 22-19 galdu zuten sakandarrek. Partida estua izan zen, 531 pilotakada izan zituena, eta emozio handikoa. Ezkurdiak eta Zabaletak akats gehiegi egin zituzten, 14 akats guztira –5 aurrelari arbizuarrak eta 10 Etxarrengo atzelariak–. Merino izan zen partidako onena. Ziurtasunez aritu zen errioxarra, eta akats gutxi egin zituen. Sakandar gazteek gara ipena eskuratzeko aukera alferrik galdu zuten, errioxarrek bikain probestu zutena.

Bigarren jardunaldian, puntu eskas batengatik galtzetik datorren Berasaluze eta Albisuren kontra jokatuko dute Xalak eta Zubietak. Aldiz, larunbatean, Irujo eta Barriolaren kontra aritu beharko dute Ezkurdiak eta Zabaletak. Jaunarenak Irujo ordezkatu zuen asteazkenean baina iberoarrak larunbaterako prest egotea espero du.

Binakakoa. 2. Jardunaldia

Berasaluze II.a-Albisu / Xala-Zubieta (ostiralean, 16:30ean, Beotibarren)
Olaizola II.a-Aretxabaleta / Bengoetxea VI.a-Ladis Galarza (larunbatean, 17:30ean, Labriten. NITRO)
Irujo-Barriola / Ezkurdia-Zabaleta (igandean, 17:00etan, Astelenan. ETB1)
Titin III.a-Merino II.a / Urrutikoetxea-Beroiz (asteazkenean, ilbeltzak 1, 17:00etan, Astelenan. ETB1)

Zabaleta eta Ezkurdia Titin eta Merinorekin material aukeraketan. ASPE

Ezkurdiari eta Zabaletari kontratua luzatu die Aspek

Aspe enpresak kontratua luzatu die 22 urte dituzten Joseba Ezkurdia eta Jose Javier Zabaleta pilotari sakandarrei eta Jon Jaunarenari. Joseba Ezkurdiari 2016ko abendura arte berritu dio enpresak, eta Jose Javier Zabaletari, 2015eko abendura arte.

Pala

Olaia Eizagirre II. Napar Palako finalera

YANIRA ETA SAIOA ARISTORENA GUTXIGATIK BAINA FINALETIK KANPO GERATU DIRA

Finalerdietako emaitzak:

Lekunberrin:
Lehen maila: Olaia Eizagirre-Maider Huizi **30** / Eli Pagola-Edurne Argain **21**
Eliteak: Rebeka Contin-Susana Muneta **30** / Itsaso Pradera-Leire Etxaniz **21**
Larragan:
Lehen maila: Maddi Mendizabal-Miren Goikoetxea 30 / Saioa Aristorena-Amaia Ariztegi 29
Eliteak: Amaia Irazustabarrena -Ariane Arrieta **30** / Yanira Aristorena-Maider Mendizabal **23**

Nafarroako elite mailako Emakumeen II. Napar Pala Txapelketako final handiak jokatuko dira igandean Iruñeko Labrit pilotalekuan, eta finaletara ordezkari sakandar bakarra iritsi da: Olaia Eizagirre etxarriarra. Huizirekin batera jokatzen du Eizagirrek eta finalerdietan Eli Pagola eta Edurne Argain utzi zituzten bidean. Finalean Saioa Aristorena etxarriarra eta Amaia Ariztegi bidean utzi zituzten Maddi Mendizabal eta Miren Goikoetxea izanen dituzte aurkari. Elite mailan ez dugu finalista sakandarrik, Yanira Aristorena eta Maider Mendizabalek 23-30 galdu baitzuten Irazustabarrenaren eta Arrietaren kontra. Hauek Rebeka Contin eta Susana Muneta izanen dituzte kontrario.

Napar Palak eliteko emakumezkoen gomazko pala sustatu nahi du, eta emakume palisten lana Nafarroan barna hedatu. Guztira 12 biko lehiatu dira. Nahiz eta finalerdietarako lehian zeuden hiru sakandarrak sailkatu, finaletara soilik Olaia iritsi da. Ea lehen mailako txapela Etxarrira ekartzen duen.

II. Napar Palako finalak

Igandean, 11:00etan, Labriten
Lehen Maila: Olaia Eizagirre-Maider Huizi / Maddi Mendizabal-Miren Goikoetxea
Eliteak: Rebeka Contin-Susana Muneta / Amaia Irazustabarrena-Ariane Arrieta

Olaia Eizagirre. UTZITAKOA

Areto futbola

12+12 futbol txapelketa Irurtzunen

La Guan taldeak antolatuta, larunbatean eta igandean jokatuko da, Irurtzungo kiroldegian. 15 talde lehiatuko dira, 5 multzotan banatuta.

Irurtzungo kiroldegiak 12+12 orduko areto futbol txapelketa hartuko du asteburuan. Irurtzungo La Guan taldeak antolatu du txapelketa. Txapelketa bihar hasiko da, larunbatean, goizeko 9:00etan eta 22:00etara arte luzatuko da. Igande goizean ekingo zaio berriro txapelketari, 10:00etan.

15 talde ariko dira txapelketan. 3 taldez osatutako 5 multzotan jokatuko dute. Multzo bakoitzeko talde onenak eta bigarren postua lortu duten 3 talde onenek final laurdenak jokatuko dituzte igandean, goizeko 10:00etan hasita. Gero finalerdien txanda helduko da. 3. eta 4. postua zehazteko finala 17:30ean hasiko da eta final handia 18:30ean.

Taldeak sakandarrak, Iruñerrikoak eta Lekunberrikoak dira. Kiroldegian egonen da zerbait hartzeko aukera, eta Gabonetako zarea zozketatuko da. Trofeoez gain, txapeldunek 500 euro, bigarrenek 250 euro eta hirugarrenek 100 euro jasoko dituzte.

15 taldeak

A multzoa:
Beti Kozkor, Potsomagic, All Star
B multzoa:
Smokers, Los Aspas, Isotopos
C multzoa:
Karrobide, La Six, Fluminense
D multzoa:
Faif, Guan, Lagun Artea
E multzoa: Txampa Samba, Noain, Bi Aizpak

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

3. MAILA

18. JARDUNALDIA

OSASUNA B 1 – LAGUN ARTEA 0
Taxoaren, Osasuna B-k izugarri sufritu behar izan zuen oso ongi jokatu zuen Lagun Artea menpean hartzeko. Partida oso lehiatuan, Osasunak sortzen zuen jokoa, baina Lagun Arteak izugarri presionatu zituen iruindarrak. 30. minutuan Maikelek Lagun Artearen atea zulatu zuen. Berdintzeko aukera ere izan zuten lakuntzarrek, baina ez ez posible izan.

Sailkapena >>

1. San Juan ..... **42 p**
11. Lagun Artea ..... **22 p**

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA – BETI ONAK
(Igandean, 15:30ean, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

15. JARDUNALDIA

ALTSASU – UNIV. DE NAVARRA (atzeratuta)
DONEZTEBE 2 - ETXARRI ARANATZ 0
LAGUN ARTEA B 2 - VALLE DE EGÜES 1
Lehen zatian Doneztebek dominatu zuen eta gol bat sartu zuen. Etxarrik presionatu zuen eta horri esker ez zuen gol gehiago jaso. Bigarren zatian dominatzen hasi zen Doneztebek eta bigarren gola sartu zuten. Etxarri saiatu egin zen, baina ez zuen lortu kontrako atea zulatzea. Bestalde, Lakuntzan Lagun Artea B-k 2-1 irabazi zion Valle de Egües taldeari.
Hurrengo jardunaldia ilbeltzaren 12an jokatuko dute.

Sailkapena >>

1. Beti Kozkor ..... **32 p**
4. Altsasu ..... **23 p**
9. Lagun Artea B ..... **20 p**
15. Etxarri Aranatz ..... **10 p**

Areto futbola

Magnak Burela hartuko du

Asteburuan Jumillari 2-4 irabazi ondoren, gaur Burela taldea hartuko du Magna Nafarroa Xotak, Anaitasuna Pabilioian, 20:30ean. Ohorezko mailako liderra Inter Movistar da (43 puntu). Imanol Arregiren mutilak 5.ak dira (25 puntu) eta Burela 9.a (16 puntu). Ea hiru puntuak Sakanan gelditzen diren.

Racing San Martin lider Futsal Sakanan

Futsal Sakana Txapelketako lehen itzulia despeditu da

Futsal Sakana txapelketako 7. jardunaldia despedituta, Racing San Migel talde uhartearra da liderra, Arbizu eta Auzomotojorik oso gertu dituela. Altsasuko Biltoki, Iturmendi, Bunker eta Etxarriko Gaztetxie sailkatu dira atzetik.
Racing San Migel taldeko hiru jokalari daude pitxitxien sailkapeneko buru: Asier Turumbay (13 gol), Daniel (11 gol) eta Jesus (10 gol). Bestalde, gol gutxien jaso duen atezaina Arbizu K.T. taldeko Iñaki Galarza da, Racing San Migeleko Iñaki Irigoienekin eta Arbizu K.T. taldeko Xabierekin batera.
Futsal Sakana Txapelketak atseden hartuko du ilbeltzaren 10era arte

Mendia

Altsasuko Mendigoizaleak eta Dantzaleku Sakanak batera lan egingo dute

Dantzaleku Sakana Atletismo Klubeko mendi sailak eta Altsasuko Mendigoizaleak taldeak elkarrekin antolatu zuten urriaren 6an Nafarroako Mendi Kluben eguna, Altsasun, "*Goazen denok mendira*" lelopean. Ikusita aipatu taldeetan erreleboa zaila dagoela eta egindako elkarlanak bi taldeei onura ematen diela, mendiarekin zerikusia duten proba eta ekitaldi guztiak elkarrekin antolatzea erabaki dute. "Talde bakoitzak bere nortasuna mantenduko du, bere zuzendaritza batzordea eta bere ekintza eta ekitaldiak. Baina mendi probak daudenean, klub bakoitzak bost kide jarriko ditu eta sortzen den taldetxo horrek antolatuko ditu mendi ekitaldiak" adierazi digu Dantzalekuko Peio Bergarak. Hiru mendi zerrak mendi ibilaldia, Nafarroako Mendi Kluben eguna, txangoak, irteerak eta beste lirateke antolatu beharrekoak. "Lortu nahi dena, finean, mendizaletasuna, naturaren ezagutza eta beste sustatzea da, diapositiba emanaldiak sustatzea, eta bereziki, haur eta txikiekin irteerak sustatzea" gaineratu du Bergarak.

Mendia

Agurra eta ongi etorria, mendian

MENDIZALE ASKOK URTE BUKAERA ETA HASIERA MENDIETAN OSPATUKO DITUZTE

Urtea bukatu eta asteko modu asko daude. Horien artean, oso zabaldua dagoen ohituretako bat mendira joatea da. Aukerarik ez da faltako, behintzat, urteko azken eta lehen egunak mendian ospatu nahi dituenarendako. Gure mendizaleek, jakina, bat egin dute ohitura honekin.

Urtea despeditzeko Aizkorri, Trinitatea eta Aralar dira ohikoenak. Eta urteari ongi etorria egiteko askok San Migelera, Beriainera eta beste joko dute. Bestalde, Errege Egunean Sakanako mendizaleek Beriain itzotzeko ohitura dute.

Aralarrek mendigoizaleak batu zituen

Igandean mila pertsona inguru bildu ziren Aralarren, 49. Mendigoizaleen Egunean. Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak antolatuta, hildako mendizaleak gogoratzeko eguna eta mendizaleak elkartzeko eguna izan zen Mendigoizaleen Eguna, Gabonen aurreko igandean urtero ospatzen dena. Mendizale gehienak Uharte Arakildik atera ziren Aralarrera igotzeko, baina Lakuntzatik, Madotzetik, Baraibartik eta Iribastik ere abiatu ziren mendigoizaleak, santutegia helburu. Eguzkia lagun, mendian ibiltzeko egun paregabea zen. Mendi puntan txuri, baina bestelakoan bidea primeran zegoen eta izugarri disfrutatu zuten mendizaleek.
Santutegian hildako mendizaleen aldeko meza eman zuen Mikel Garziandiak, eta mendizaleek aldarean utzitako materiala bedeinkatu zuen kaperauak. Ondoren, eta trikiti doinuak lagun, hamaiketako bikaina izan zen, Aralarko ostatuta kudeatzen dutenek prestatutakoa. Anaitasuna kluba izan zen festako antolatzailea, eta hurrengo urtean ere klub berberak hartu du festa prestatzeko ardura, klubaren 50. urteurrena ospatuko baita. Nafarroako Mendi Federazioko prsidente Martin Montañesek azaldu zuenez, "galdu ezin den egun polita da Mendigoizaleen eguna". Presidenteak gaineratu zuenez, 2013an 8.512 mendi lizentzia atera dira.

Irteerak

Trinitatea. Abenduaren 31n, asteartean, Irurtzundik, 9:00etan. Irurtzungo Iratxo eta Pikuxar elkarteak antolatuta, aurten 8. edizioa izango da. Iratxo mendi taldeko finalista egunа izanen da.

Aizkorri. Abenduaren 31n, asteartean. Altsasuko mendigoizaleek antolatuta.

Lakuntzaskoarri. Zabalarte mendi elkarteak antolatuta, abenduaren 31n, IV. Lakuntza-Eskuarri igoera eginen da. Irteera goizeko 8:30ean, plazatik. Zabalartek hamaiketakoa eskainiko du Lakuntzako Bordetan.

Beriain. Ilbeltzaren 6an, astelehenean, 9:00etan Unanutik. Sakanako Mendizaleak taldeak antolatuta, Errege Egunean urtero egin ohi duten bezala.

Bargagain. Ilbeltzaren 5ean, domekan, Altsasuko Mendigoizaleek antolatuta. Urteko lehen igandean Bargagainera joko dute, 8:00etan aterata. Goian hamaiketakoa eta festatxoa izanen dira. Altsasuko zortzikoa ez da faltako.

»

Zabalzak Karakorum ekarriko du Lakuntzara

Igandean, 19:30ean, Lakuntzako udaletxean

Mendizale eta eskalatzaile beteranoa da Mikel Zabalza nafarra. Esperientzia handiko alpinista da eta mundu guztian barrena ibili da. Alberto Iñurrategi eta Juan Vallejorekin batera Basque Team taldea osatzen du eta makina bat espedizio arrakastatsu egin dituzte, Antartida gurutzatzearena, esaterako.

Lakuntzako Zabalarte klubak antolatuta, Karakorumi buruzko proiekzioa ekarriko du Zabalzak igandean, 19:30ean, Lakuntzako udaletxera. Karakorum Pakistan, India eta Txina arteko mugan dago. Bertan daude K2, Gasherbrum I eta II eta Broad Peak zortzi milakoak.

Saskibaloia

Juanjo Marin Memoriala igandean Altsasun

CBASKEN TALDEEN AURKEZPENA EGINEN DA BERTAN

Altsasuko CBASK Saskibaloi Taldeak Juanjo Marin Memoriala antolatu du igandetarako, abenduaren 29rako.

Marin Altsasuko Saskibaloi klubeko bazkide, jokalari eta laguna, orain dela urte batzuk hil zen auto istripuz eta urtero omenaldia egiten diote. Ekitaldia zabaltzeko CBASK-en talde ezberdinen aurkezpena eginen da, eta ondoren CBASKeko haurren eta kadeteen arteko partida jokatuko da. Atsedenaldian, benjaminen eta minien arteko lehia jokatuko da. Auzatearekin eta zozketarekin despedituko da memoriala.

Juanjo Marin Memoriala

>> Abenduak 29, igandea, Zelandin

10:00etan CBASK taldeen 2013-2014ko denboraldiko aurkezpena
10:45ean Kadeteen eta haurren mailen arteko partida mistoa. Atsedenaldian benjaminen eta minien arteko partida.
12:30ean Produktu sorten zozketa.
12:45ean Auzatea.

kultura >>

ANTZEZLE AMATEURREN FESTA LIZARRAN: Altsasuko Tarima Beltza taldea bere baitan hartzen duen Nafarroako Antzerki Amateur Federazioak bere festa ospatu zuen larunbatean. Sariak banatu zituzten.

Rayo bigarren filmarako finantziazioa lotzen

Imanol Rayo zuzendaria bere bigarren filma izanen dena prestatzen hasia da, Orio Produkzioak eta Irusoin etxeekin batera. Gauzak ongi heldu den urte akaberan hasiko litzateke filmatzen. Film berriak *En pleno mundo* izenburua izanen du eta Gabriel Arestiren *Mundu Munduan* eleberrian dago oinarrituta. *Bi anai* filman egindako lehen lanak izan duen harrera onaren ondoren, zuzendariarbizuarrak umetako jolas tolesgabe batek protagonisten helduaroan dituen ondorioak agertzen dituen proiektua ekoitziko du. Jolas hartan parte hartu zuten umeen erruduntasun-sentimenduak haien bizitzak sakrifizio-ekintza gisa ikustera eramango ditu.

Arteen eta Zinemaren Nafarroako Institutuak 90.000 euro laguntza eman die ekoizte-etxeei; 971.700 euroko aurrekontua du.

Italiar titiriteroen miniaturazko ikuskizun aparta Irurtzunen eta Olatzagutian

Larunbatean, 18:00etan Irurtzungo kultur etxean eta domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean

Bi pertsonaia. Bi esku. Bakoitzean latex naturalez egindako burua, bi esku eta tolestutako bi hanka. Eta jantziak. Eta zuzeneko musika. Eta oinargiak. Hori besterik ez du behar Girovago e Rondella konpainiak aparteko ikuskizuna eskaintzeko: *Manoviva*. Txotxongilo antzerki klasikoaren garapena da, zeinetan eskuak, inolako hitzik gabe, istorioak kontatzen dituzten; aparteko unibertso bat sortuz.

Txotxongilo bihurtutako bi eskuak, pertsonaiak, oinez ibiltzen dira. Edozein pertsonaren pare ariko dira joko eta akrobaziak egiten. Modu libre, adierazkor eta sortzailean adieraziko dira. Akaberan, ikusleak eskuko behatzak modu independentean mugitzen erakutsiko diete.

Euskaltegitik Iturralde literatur unibertsora

Bidai hori egin zuten pasa den asteko asteazkenean Sakanako AEK-ko 35 ikaslek, irakaslek eta zenbait mintzakidek Josemari Iturralde idazlearekin egindako topaketan. Tolosarra idazle bidaiaria dugu eta bidaia horietako batzuetatik sortutako zenbait liburuen berri eman zuen, zehazki, *Poloniako lautada izoztuak* (Igela, 2001) eta *Rasputin eta San Petersburgoko gauak* (Elkar, 2013). Azken horretaz jardun zen bereziki eta irudiez lagundu zuen bere azalpena.

Hizketaldiak atzoko eta gaurko euskal literaturaz, idazleen ogibideaz eta beste hitz egitera eraman zuen. Zenbaitek hitzaldiaren oroigarri berezia jaso zuten: idazlearen sinadura. Solasaldia Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, AEK-rekin elkarlanean, antolatu zuen, euskaraz irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko helburuarekin.

Etxepare saria deitu dute

Haurrendako album ilustratu bat argitaratuko da

Haurrendako irudia eta testua uztartuz istorio bat kontatu nahi duten album ilustratuen egileak aurkeztu daitezke Etxepare sarira. Mank-eko Euskara Zerbitzuak Nafarroako beste hainbatekin batera antolatu du.

Sariketara euskaraz idatzitako lanak aurkeztu daitezke; jatorrizkoak eta argitaragabeak izan behar dute. Bakarka edo idazle eta ilustratzaile bikoteak aurkeztu daitezke lehiaketara. Azken bi deialdietan saritutako sortzaileek ezin izanen dute parte hartu. Formatuari dagokionez, librea da, baina 20 cm x 21 cm baino txikiagokoak izanen dira eta gutxienez, 15 orrialde bikoitz izanen dituzte. Testuari dagokionez, 4.000 karaktere (zuriuneak barne) baino gehiago ezin dute izan.

Lan originalarekin batera lau CD-rom aurkeztu beharko dira, plika sistema erabiliz. Maiatzaren 23rako aurkeztu beharko dira lanak, Leitzako Udalaren Euskara Zerbitzuan (Elbarren, 1, 31.880, Leitza). 5.000 euroko sari bakarra izanen da eta Pamielak argitaratuko du.

Salazar Windsorden

Ilbeltzaren 15era arte, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etara eta 20:30era

Lastailaren 4tik azaroaren 15era Dora Salazarren *Un Paseo por Bilbao* erakusketa hiri bereko Windsor Kulturgintza galerian izan zen ikusgai. Egile altsasuarraren lana galeria berera bueltatuko da, oraingoan *Coleccionar y Regalar* papel erakusketa kolektiboaren baitan. Itzala duten 40 egilek paper gainean egindako lanak daude ikusgai galerian; pintura, zerak, argazkiak, marrazkiak eta lan grafikoak hain zuzen ere.

bazterretik

Galder Gonzalez

(h)Erri(a)gora

Errigoraren kutxa jaso nuen aurrekoan eta etxera eraman. Beste milaka pertsonek bezala, ilusioz eta produktu onez beteriko kutxa hartu nuenean, proiektu horrek daukan garrantzia oraindik guztiz ulertu gabe nuen. Kutxa irekitzeak beste dimentsio bat ematen dio ideiari. Ez dakienarentzat: Errigora ekimena Erriberatik abiatutako ideia bat da. Bertako produktuak zuzenean saltzen dituzte, intermediariorik gabe. Modu horretan, beste kontsumo talde askotan egiten den bezala, elikadura burujabetzan sakontzen da, nekazari/produktore eta erosle/kontsumitzailearen artean lotura sendoagoa osatuz. Baina Errigorak badu plus bat: bertan jasotzen den diruaren zati bat Erriberan euskalgintza proiektuak bultzatzeko erabiltzen da. Erosketa, beraz, bikaina da, 2x1 handi bat.

Esandakoa, aurrekoan jaso nuen kutxa eta olio ekologikoaren etiketa irakurtzerakoan zirrara berezi bat sentitu nuen. Bi nekazarien izena agertzen den, euskaraz etiketatua, gazteleraz eta frantsesezko azalpenekin. Olibak euren lurretan ez ezik, inguruan dituzten beste nekazari batzuen lurretan ere hazi direla azaltzen dute, eta gero botilan sartu dutela bereziki euskarari putz egiteko proiektu hau egiteko.

Posible litzateke Errigorak izan duen arrakasta orain urte batzuk? Bai, posible liteke, baina agian izan duen boom horren, arrakastaren parte bat Interneten aurkitu behar dugu. Facebook eta Twitterretik jaso nuen proiektuaren berri, euren blogaren bidez informatu ginen. Asko izan gara galdetu dugunak, lagunei berbidali diegunak eta informazio sare oso handi bat sortu dugunak publizitate kanpaina klasiko baten prezioaren zati txiki baten truke.

Eta hurrengo urtean zer? Ba espero dezagun horrelako proiektuek aurrera egitea, Erriberan euskara indartzea garrantzitsua dela eta bertako nekazariek euskalgintza aliatu naturaltzat hartzea. Hori da, besteak beste, hegemonia sortzeko prozesu bat.

Haize Berriak banda Queen omenduz

Altsasuko Iortia kultur guneko biharko sarrera guztiak agortuta, ilbeltzaren 4an, 20:00etan, berriro. Sarrera gutxi gelditzen dira.

Queen bere aurreneko diskoa karrikaratu zuela 40 urte betetzen direla ospatzeko Haize Berriak bandak kontzertu bikoitza prestatu du: *Ikuskizunak jarraitu behar du*. Talde britainiarraren kantuak joko dituzte omenaldi-emanaldi horietan. Sakanako musika bandako zuzendari Luis Orduñak azaldu digunez, "bandarendako soinu berri bat opatzea proposatu diogu geure buruari. Rock sekzioa duen banda bat". Horregatik, Haize Berriak bandako musikariekin batera gitarra elektrikoa eta baxu elektrikoa jotzen duen musikari bana izanen da.

Emanaldiko programa Queen eta Fredy Mercuryk sortutako kantuek osatuko dute. Hala, Iortian *We are the chanpions* edota *Crazy little called love* moduko kantuak entzuteko aukera izanen da. Kantu eta hit ezagun askoak izanen dira denak ere. Bandarako tema instrumentalak dira, baina Queen taldeak abeslaririk gabe ezer gutxi zenez, bandak Mercuryren ordezko kantariak opatu ditu emanaldirako. Orduñak aurreratu digunez, "kontzertu oso bereziak izanen dira. Sorpresa asko izanen dira. Aretoan pertsonalitate baten laguntza izanen dugu".

Haize Berriak banda agorrilean hasi zen emanaldia antolatzen. Entseguak irailean hasi zituzten, *Taupadak* ikuskizuneko entseguekin tartekatuz. Ikuskizunaren berezitasunaz gaztigatu gaitu Orduñak: "Queen letra ederrak eta oso landutako musika zuen taldea zen. Horregatik, taldeko fansendako eta edozein entzulerendako aproposa da emanaldia".

Bi emanaldi

Hasiera batean *Ikuskizunak aurrera egin behar du* ikuskizunaren emanaldi bakarra zegoenaurreikusia, abenduaren 28koa. Baina sarrera guztiak berehala saldu zirenez, bigarren emanaldi bat eginen du bandak, ilbeltzaren 4an.

Urteko jarduna

Galtzak bete lan ibili dira aurten ere Haize Berriak bandako kideak. Martxoan tronboi irristailudun joleendako topaketa antolatu zuen bandak. Maiatzaren 26an Etxarri Aranazko Dantzakia dantzaren partituraren bandarako moldaketa aurkeztu zuen aipatu herrian. Lastailean buru-belarri aritu dira Fran Idaretaren *Taupadak* ikuskizunean parte hartzen. Hiru emanaldi eskaini zituzten Irurtzunen, Etxarri Aranatzen eta Altsasun. Azkenik, urtero moduan inauterietan, San Juanen eta festetan Altsasun kontzertu bana eskaini zuten.

Bertsolarien letrak musikatuko ditu Tximeletak aurreneko diskoan

Tximeleta plaza taldea entsegu lokalean lan eta lan ari da egun hauetan. Gauzak ongi, otsailean diskoa grabatzeko asmoa dute. Hainbat bertsolarik sortutako letrei doinua jartzen ari dira. Letra egileen artean daude: Xabier Silveira (*Etxerat*), Eneko Lazkoz eta Joseba Beltza (*Lurrari lotua*), Julio Soto (*Aurrera begira*), Arkaitz Estiballes (*Mugitu jaietan*), Miren Amuriza (*Sorgin bat gehiago*), Beñat Gaztelumendi (*Zuri*), Joseba Beltza (*Kide zorabiatuaren kunbia*), Manu Gomez (*Gora herri askeak*) eta Iker Zubeldia (*Tximeleta gara*). Oraindik zerrenda gehiago zabaldu daiteke.

Los del Rayo disko berriko kantuak nahasten

Pablo Rayorenean entseatzen zutelako hartu zuen taldeak izena. Haren omenezko kontzertu baten ondoren bueltatu ziren duela urte eta erdi. Ordutik hainbat kontzertu eman ditu taldeak. Baina betiko kanta zaharrak jotzeak sortutako monotonia hausteko, animatu eta kantu berriak sortzea erabaki zuten taldekideak.

Altsasuarrek Rikardo Areta eta Ismael Katarekin grabatu dituzte prestatu dituzten sei kantu berriak. Haietako batean Enrique Villareal, El Drogas, izan dute laguntzaile. Orain estudioan kantuen nahasketak egiten ari dira. Diskoa negu akaberarako nahiko lukete kalean Alonsok (bateria), Leok (gitarra), Josek (baxua), Pello Diazek (gitarra eta koroak) eta Juankarrek (kantaria). Orduan taldeak aurreneko maketa karrikaratu zuela 25 urte beteko dira.

LOS DEL RAYO

Kaotiko elkartasun jaialdian

Bihar, 16:30etik aurrera, Atarrabia eta Burlata artean dagoen Entrecementerios deritzon eremuan Hatortxurock-en 16. edizioa izanen da. Karpa erraldoi bat jarri dute eta bi eszenatokietan txandakatuz dozena bat talde ariko dira jaialdian. Haien artean dago Xabier Aldaz (bateria) etxarriarraren Kaotiko taldea, 3:00etan joko dutenak. Jaialdia 16:30ean hasiko da.

Gasteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 18%	euria: 75%	euria: 45%	euria: 18%	euria: 35%	euria: 65%	euria: 94%
Min: 5 Max: 14	Min: 6 Max: 8	Min: 0 Max: 7	Min: 2 Max: 7	Min: 4 Max: 7	Min: 3 Max: 8	Min: 4 Max: 7

: tenperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	11	-2	59.2
Etxarri A.	11.2	-3.6	37.7
Altsasu	11.5	-2.5	38.9
Aralar	4.9	-4.1	25.9
Urbasa	7	-6	57.1

: ilargiaren aldia>>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
1	8	16	24

beleixeguaixe

Abenduko bazkide zozketa

ABENDUKO SARIAK:

1- LIBURU LOTEA+EKAINBERRIRAKO 2 SARRERA+LACTURALE INTERPRETAZIO ZENTRORAKO 2 GONBIDAPEN+MAGNA NAVARRA IKUSTEKO 2 SARRERA
2-LIBURU LOTEA+LACTURALE INTERPRETAZIO ZENTRORAKO 2 GONBIDAPEN+MAGNA NAVARRA IKUSTEKO 2 SARRERA
3- LIBURU LOTEA+LACTURALE INTERPRETAZIO ZENTRORAKO 2 GONBIDAPEN+MAGNA NAVARRA IKUSTEKO 2 SARRERA
4- LIBURU LOTEA+LACTURALE INTERPRETAZIO ZENTRORAKO 2 GONBIDAPEN+MAGNA NAVARRA IKUSTEKO 2 SARRERA

>>11 galdera

Silvia Colmenero

Scrap egilea. Altsasu

Testua: Eneida Carreño eta Maider Betelu

1.Zer da scrapa?

Duela 3 urte nire ahizpa ezkondu behar zen, eta album bat egiteko asmoz interneten begiratzen hasi nintzen eta scrapari buruzko informazioa topatu nuen. Scrapa, azken finean, ditugun oroigarri guzti horiek biltzea eta pertsonalizatzea da, forma ematea. Scrapbook edo albuma egiteko bilketa egiten hasi nintzen: ahizparen jaiotza-agiria, dokumentuak, argazkiak, oroigarriak… Sekulako albuma egin nion, oso polita. Scrapak harrapatu ninduen eta 3 urte daramatzat postalak, albumak eta denetarik egiten.

2.Soilik ez dituzue albumak eginen, ezta?

Ez. Bakoitzak nahi duena lantzen du. Zoriontzeko txartelak, ATC edo kromoak… Esaterako, gai bat jartzen dugu, adibidez eguberriak. Eta bakoitzak nahi duena sortzen du kromo antzeko espazio txikian. Eta gure artean trukatzen ditugu.

3.Interneten scraper sare edo talde bat zarete.

Internetek lagundu du scrapa lantzen duen toki askotako jende hori guztia harremanetan jartzen. Orain gutxira arte pentsatzen genuen Euskal Herri aldean Altsasun biltzen ginenak bakarrak ginela. Baina facebookean talde bat sortzea erabaki genuen eta horren ondotik konturatu gara jende asko dagoela Euskal Herrian scrapa lantzen duena. Bururatu zitzaigun ideia polita litzatekeela bilerak, crop delakoak, Altsasun egitea eta 8 pertsona elkartu ginen.

4.Altsasu duzue topagune.

Urtean barna hiruzpalau aldiz elkartu gara. Bi proiektu lantzen ditugu, goizean bata eta arratsaldean bestea. Eta lan eta lan egoten gara, gustura.

5.Scrapa zuen zaletasuna da, baina lanbide izan daiteke?

Zaletasunak jende askori lanbidea ireki ahal dio, gehienbat hiriburuetan, bertan sortzen dira horretarako aukera gehiago. Jende askok scrap tailerrak ematen ditu, dendak zabaltzen dituzte…

6.Zer nolako materialak erabiltzen dituzue? Edozer gauza baliagarria da?

Bai, gaileta kaxa bat, zereal kaxa, baratxurien saretxoak ere erabiltzen ditut… dena. Konturatzen zara etxean zaborretara botatzen dugun hori agian hau edo beste egiteko balio duela. Azkenean sekulako sindromea dugu eta dena gordetzen dugu.

7.Facebookaz gain bloga sortu duzue.

Bai. Izan ere, egiten ditugun gauza gehienak oparitzeko dira. Hortaz, egin ditugun lan guzti horiek gogoratzeko eta nolabait izateko, argazkiak egiten ditugu eta bilduma moduan blogean (http://7005kolore.blogspot.com.es/) jartzen ditugu.

8.Duela gutxi Altsasun Navicrop topaketa egin zenuten II Padrino jatetxean.

Bai. Urtea festa polit batekin amaitu nahi genuen. Eta azkenean polita eta sekulakoa izan da. Hasiera batean 15 pertsona inguru biltzea aurreikusten genuen baina, azkenean, 30 pertsona bildu ginen, Euskal Herriko txoko guztietatik etorritakoak. Oso pozik gaude erantzunarekin.

Egun osoko tailerra izan zen. Goizean Eguberrietan aterako ditugun argazkiendako album berezi bat egin genuen. Patricia Martinez donostiarrak eman zuen tailerra. Eta bazkaldu ondoren bi aktibitate egin genituen, nik eskainitakoak. Batetik, Eguberriak zoriontzeko txartel bat egin genuen eta, bestetik, pinuan jartzeko apaingarri bat. Ondoren lagun ezkutua egin genuen eta scrap produktuen hainbat dendek eskainitako oparitxoak zozketatu genituen.

9.Zuekin harremanetan jartzeko zer egin behar da?

Aipatu blogean sartu edo ondoko posta elektronikoaren bidez gurekin harremanetan jarri: cropnavarraeuskadi@hotmail.com.

10.Adin mugarik al du scrapak?

Ez. Eta berdin du mutila hala neska izateak. Emakumeak gara gehienak baina taldean mutil bat ere badugu. Asko gustatzen zaigu beraiek etortzea, azken finean beste ikuspuntu bat da eta eurekin asko ikasten dugu.

11. Hortaz, anima daitezela!

Jakina, nahi duen guztiak! Gainera scrapak pila bat erlaxatzen du, esaten dute terapeutikoa dela.